

Egungo Euskararen Hiztegia

—R—

[bertsioa: 2024-01-09]

rabbi ik **errabino**.

rabbitar ik **errabino 2**.

rabino ik **errabino**.

radar (*orobat erradar g.er.*) 1 iz oso maiztasun handiko uhinen bidez gauzaki baten norabidea eta distantzia zehazten dituen tresna edo aurkitze sistema.

Horrela etorri ziren mundura, 1935ean, bakoitza bere aldetik, **radarra**, magnetofioia, parkimetroa eta PVCa. Pello Salaburu

Radarrak batekin antzeman eta misila bota zieten hegazkin batetik. Berria - Mundua

Airekoa Macae hiritik atera eta 20 minutura **radarretik** desagertu zen. Berria - Mundua

Amerikar armadako ontzi baten **radarrean** etsaien itsasontzitzat jotzen duten oztopo bat ageri da. Harkaitz Cano

Itsumendu zuri hartan, **radarra** zen kapitainaren itsumutilla. Joseba Sarrionandia

Radarra ere ez zebilen, nonbait, behar bezala. Jon Muñoz

Ez da beharrezkoa bide bakoitzean **radar** bat jartzea autoen abiadura apaltzeko eta heriotzen kopurua gutxitzeko. Berria - Harian

Cloudsat-ek **radar** berezi bat eramango du, propio hodeiak ikertzeko prestatua. Berria - Gaiak

Radarra erabiliko zuen, lehen aldiz, Saturnoren satelitearen azalaren kartografia egiteko. Berria - Gaiak

Radar meteorologikoa, 10 minutuoro, 200 km alde orotara aztertzen dituena. Pello Zabala

Radar militarren bidez kontrolatu zituzten. Berria - Harian

Alaznek batera eta bestera begiratzen zuen, guda-ontzi bateko **radarra** balitz bezala. Fernando Morillo

Gero haien baliokideen bila ateratzen zen kalera, bere bidean gurutzatzen ziren guztien aurpegietan iltzatuz begirada, **radar** baten zorrotasunaz. Harkaitz Cano

2 irud/hed

Zuen airekoei batzuetan gertaturikoa gerta lekietan saguzarrei ere: **radarrak** huts egin eta paretaren kontra talka. Xabier Montoia

«Orain **radar** politikoa ez dugu ikusten gobernu autonomorako berehalako itzulera», gaineratu zuen, Londresek 2002ko urrian unilateralki etendako instituzioez mintzo.

Berria - Mundua

Egunero eta egun guzian beha zaudela, ate edo giltza edo urrats harrabotsei beha, beharriak xut, antena luzaturik, **radarrak** pizturik, erne. Filipe Bidart

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eroritako bi airekoak **radar** pantailetatik desagertu zirela adierazi zen. Berria - Mundua

Radarrak transmisore baten gunean dagoen magnetroi baten ondoan zegoela, txokolate zati bat urtu zitzaion Percy LeBaron Spencer-i. Pello Salaburu

Saddam Husseinen aginteari **radar** sistemak saldu izana leporatzen zion Washingtonen Kievi. Berria - Mundua

Boeing 737 airekoa **radar** kontrol pantailetatik desagertu zen goizaldeko 04: 44 zirelarik eta Sharm-el-Sheikh hiri balneario ezaguneko aireportutik doi-doi aireratuta zegoelarik. Berria - Mundua

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horretaz gain, NATOk hegazkin-**radarra** bidaliko du ostiralean Erromara. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

radar berezia (3)

radarrak jarriko (3)

radiestesias (*orobat erradiestesias*) iz pertsona batzuk erradiazio elektromagnetikoak hautemateko omen duten dohaina.

Handik goiti, aurpegi mudagaitz berberarekin hartuko nituen elkarren segidan etorri ziren guztiak: kirolgia, **radiestesias**, alkimia, bidaia astralak, filosofia tibetarra eta, hutsik egin gabe, horiei denei zegozkien "Taldea". Aingeru Epaltza

-Harreman estua du geomantzia eta **erradiestesiarekin** -erantzun zidan. Alberto Ladron Arana

radiestesista iz radiestesias erabiltzen duen pertsona.

-Badaukat iloba bat **radiestesista** izateko dohainak dituena, irakatsi egin behar nioke lupeko lasterrak bereizten eta harribitxiak izpiak itsututa atzematen... Koldo Izagirre

Izugarriko sinusitis krisiak ukaiten nituen, eta **radiestesistak** bere eskua ene kopetaren gainean pausatzen zuelarik, ba orduan ikaragarriko beroa senditzen nuen, eta beroaren ondotik, izugarriko goxotasuna. Menane Oxandabaratx

Hiru urtez **radiestesista** batek lagundu nau ene osasunaren hobetzen. Menane Oxandabaratx

radikal ik **erradikal**.

radikalizatu ik **erradikalizatu**.

radio¹ iz uranioaren familiako gai bakuna, oso erradioaktiboa, metal zuria, 700° C-tan urtzen dena (Ra; at. z. 88).

Marie eta Pierre Curiek **radioa** aurkitu zuten 1898an. [Xabier Olarra](#)

Radioak erradiaktibitatea eman eta masa galtzean, materia sortu edo desegin zitekeelako tesia zalantzan jartzen zuen. [Xabier Olarra](#)

Baliagarria zen jakitea urre kilo batek zenbat balio zuen garai hartan, baina baliagarriagoa prezio hori platino, iridio, uranio eta **radio** kilo baten prezioarekin alderatzea.

[J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

radio² 1 iz irratia.

Txekorrarekin Santo Tomasetara joan zen batean, **radioa** erosita bueltatu zen. [Arantxa Iturbe](#)

Bueno, orain batzuetan **radioa** entzuten dugu, baina... [Pello Lizarralde](#)

Makina bat bertso-saio entzundakoak gara **radio** zahar hari esker. [Arantxa Iturbe](#)

Han etorri zen osaba, **radio**-trepeta sastar batekin. [Pako Aristi](#)

Nire **radio** aparailuari lepoa bihurtu diote, mingaina ebaki, ahoa tapatu. [Berria - Kultura](#)

2 radio-taxi ik irratia **17a**.

Albertek uko egin izan zion beti **radio**-taxiari; harro-harro zegoen horretaz [Jon Muñoz](#)

radio³ ik **erradio**.

radioaktibitate ik **erradioaktibitate**.

radioaktibo ik **erradioaktibo**.

radioelektroniko *izond*

Milienkievitxez gain, Sergei Kaliakin, komunisten burua, Aleksandr Bukhvostov Lanaren Alderdiko zein industria **radioelektronikoko** sindikatuen burua eta Fronte Popularreko buru Valentin Vetkerko zigortu dituzte. [Berria - Mundua](#)

radiografia ik **erradiografia**.

radioterapia ik **erradioterapia**.

rafaga ik **errafaga**.

rafting 1 iz ur bizietako ibai batean behera hainbat lagunentzako ontzi motorgabe batean jaistean datzan kirola.

Astelehenaz geroztik ari dira lehen taldeko jokalariek gazteekin Benasquen (Espainiako Pirinioak) **raftinga** eta hidrospeeda egiten eta bizikletan eta mendian ibiltzen. [Berria - Kirola](#)

Sei kasko diferente -pilotan aritzekoa, bizikletan ibiltzekoa, eskalatzekoa, **rafting** egitekoa, motorrean ibiltzekoa, parapente egitekoa-. [Jon Alonso](#)

Oso zorabio atsegina sentitu dudala pantailatzaurrean *Grand Canyon* buruzko filma ikusi dugunean [...] Colorado ibaian **rafting** egiten sentitu naizenean. [Patxi Zubizarreta](#)

Goiz batez bi taldetan banaturik izan gira **rafting** egiterat Bidarrain diren Errobiko ur bizietan. [Herria](#)

Baliteke nagusiarentzat ehizaren antzeko kirola izatea, edo footing, puenting edo **raftingaren** antzerakoa. [Joxerra Garzia](#)

2 (hitz elkartuetan)

Ur Biziak eskaini 4 **Rafting** jauste; n° 9009, Tote Zaldubehere (Atharratze). [Herria](#)

Bordeleko kirol-unibertsitateko 35 ikasle arizan dira egun osoan kutsagailu horien biltzen, tokiko **rafting** elkarten laguntzarekin. [Herria](#)

raftingzale (*corpusean rafting zale soilik*) iz raftingaren zalea den pertsona.

Komunzki ezagutzen diren txorien migrazioak baino gehiago, hemen, erreketan gaindi agertzen diren **rafting** zaleak edota Done Jakue bidean doazenak eragin arazoak dira gogoratuko [Berria - Kultura](#)

ragga iz

Reggae, **ragga**, eta ska doinuen artean murgilduak segitzen dute. [Berria - Kultura](#)

Geure ukitua eman diegu musika beltzaren hainbat adarri: hip-hopari, rapari, dance hallari, **raggari** eta free style gisa uler daitekeenari. [Berria - Kultura](#)

CD irakurgailuan **ragga** kanta bat daukagu, Shaggy-ren **ragga** indartsu bat. [Paddy Rekalde](#)

Iparra galdu barik, ukabilaren kolpea nora zuzendu behar dugun ahaztu barik, **ragga** kanta hau entzungo dugu... [Paddy Rekalde](#)

ragtime iz Ipar Ameriketako beltzen musika estiloa, XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran boladan egon zena, konpas bitar sinkopatua ezaugarri duena.

Rendez-vous des Cheminots ostatuaz mintzatu natzaio, pianoan joarazten dudana **ragtime** zaharraz, horrek ematen didan zorion arraroaz. [Monika Etxebarria](#)

New Orleansko aireak, **ragtimea**, bluesa, espiritualak eta herri-kantu erromantikoak. [Berria - Kultura](#)

raketa ik **eraketa**.

ralenti ik **erralenti**.

ralli ik **rally**.

rally (*orobat rally g.er. eta rallye g.er.*) **1** iz auto edo motorrentzako kirol proba, abiadura, erresistentzia eta erregulartasuna kontuan hartzen direna.

19 urterekin, 1987an Suediako **Rallya** irabazi zuen bere kasa, Ford auto batekin. Berria - Kirola

Gaurtik ekainaren amaiera bitartean hiru **rally** jokatu dira itsas ondo horretan. Berria - Kirola

Martinek iazko Galesko **Rallyan** korritu zuen azken karrera. Berria - Kirola

Markko Martin estoniarrak (*Ford Focus*) ez zuen aukera galdu, eta **rallya** irabaziz Loebek adina puntu du orain sailkapen nagusian. Berria - Kirola

Mitsubishi taldeko gidariak oso maila txukuna eman zuen **rally** guztian. Berria - Kirola

Rallyko lehen bihurtuenen bidetik irten zen. Berria - Kirola

Rally batean parte hartzeko ari zen entrenatzen. Rafa Egiguren

Rallytik kanpo geratu zen Solberg. Berria - Kirola

Urteurrenaren **Rallya**. Berria - Kirola

Mena Haraneko **Rallya**. Berria - Kirola

Gernika Lumoko BBK **Rallya**. Berria - Kirola

Korsikako **rallyak** teknika handia eskatzen du, errepidea estua, gorabeheratsua eta bihurtune handiak dituen delako. Berria - Kirola

Kataluniako **Rallyko** errepideak azkarrak eta leunak dira, eta Citroen Xsara autoa nahiko ondo moldatzen da. Berria - Kirola

Tan Tan eta Zouerat herrien artean jokatu zen atzo Dakar **Rallyko** seigarren etapa, Marokon. Berria - Kirola

Vilariñok mendiko **rallyetara** jauzia eman zuen arte bera zen jaun eta jabe Europako Txapelketan. Berria - Kirola

Zirkuituetako eta **rallyetako** gidariak ariko dira, bi multzo horietan banatuta. Berria - Kirola

10:00: Auto zaharren **rallya** Sokoako parkingean. Berria - Kultura

Apirilaren 24ean, igandez, egingen da Azkaingo itzulia zaldiz, "**rallye**" baten moldean. Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Euskal Herriko **rally** denboraldia hasi da; 43 proba izango dira guztira. Berria - Kirola

1995. urtean munduko **rally** txapelkun izan zena eta Kristina Thorner albokoa, atzora arte bikain ari ziren moldatzen Nissan autoarekin. Berria - Kirola

Juha Kankkunen (**rally** gidari finlandiarra), Peter Stastni (hockey jokalaria eslovakiarra), [...]. Berria - Mundua

Gidari eskoziarrak ez du aurtin Munduko **Rally** Txapelketan parte hartuko. Berria - Kirola

Rally bideojokoetan arrakasta gehien izan duena da, eta zazpi milioi kopia baino gehiago saldu dira. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Goierrri Konpeti dokumentalean, esaterako, auto **rallyen** zaleek osaturiko lagun talde bat filmatu zuen. Berria - Kultura

Ekainaren 2an, Pirineoetan (Paue-Donostia-Paue) nazioarteko moto **rallye** bat zegoen, eta Bidasoa bazterreko errepidetik zihoala baliatuta, Nafarroa eta Lapurdiren arteko mugan barrena pasatu ginen beste aldera. Rafa Egiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

munduko rally txapelketa (14); munduko rally txapelketako (6); munduko rally txapelketan (8); rally denboraldia (5); rally txapelketan (10)

argentinako rallya (8); australiako rallya (5); dakar rallya (11); erresuma batuko rallya (4); italiako rallya (3); kataluniako rallya (10); lehen rallya (4); mexikoko rallya (13); mexikoko rallya utzi (3); montecarloko rallya (3)

rallya hasiko (5); rallya hasiko da (4); rallya irabazi (7); rallya irabazi zuen (7); rallya irabazteko (3); rallya utzi (6); suediarako rallya (8); suediarako rallya irabazi (3)

akropolis rallyan (3); argentinako rallyan (3); dakar rallyan (15); faraoen rallyan (4); kataluniako rallyan (7); korsikako rallyan (4); lider kataluniako rallyan (3); liderra suediarako rallyan (3); montecarloko rallyan (3); suediarako rallyan (8)

dakar rallyaren (4)

mendiko rallyetako (3); rallyetako gidari (3)

dakar rallyko (8); japoniarako rallyko (3); kataluniako rallyko (4); korsikako rallyko (3); rallyko lehen etapa (4); rallyko lehen etapen (3); rallyko lehen liderra (4); suediarako rallyko (6)

rallysprint (*orobat rallyesprint g.er.*) **1** iz

Larunbatean Mungian (Bizkaia) jokatu da **rallysprintarekin** hasi da ia hamar hilabete iraungo duen denboraldi ikusgarria. Berria - Kirola

Mendiko rallyak eta **rallysprintak** izango dira beste behin ere nagusi egutegian: hogeita bi proba, guztira. Berria - Kirola

Azpeitiko Ikasberri **Rallysprinta** jokatu da gaur, eta 75 auto ariko dira lehian. Berria - Kirola

Luciano Arrabalentzat Karrantzako **Rallysprinta**. Berria - Kirola

2 (hitz elkartuetan)

Rallysprint txapelketan lehenengo jarri da. Berria - Kirola

Euskadiko **Rallysprint** Txapelketako proba nagusia jokatu da gaur. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskadiko rallysprint txapelketako (4)

azkoitiko rallysprinta (3); azpeitiko ikasberri rallysprinta (3); gabiriako rallysprinta (6); rallysprinta jokatu da (5)

ikasberriko rallysprintean (3)

karrantzako rallysprinta (4)

rallyzale *izond* rallyen zalea dena.

Colin McRae **rallyzale** amorratua da. Berria - Kirola

ramadam ik **ramadan**.

ramadan *(orobat ramadam g.er.)* **1** iz musulmanen egutegiko bederatzigarren hila, egunez barau gogorra egiten dutena.

Ramadana hastera zihon: eguntsiaren ondoren ezingo zuen egun osoan mokadurik probatu. Harkaitz Cano

Zeev Boim Defentsa ministroordeak adierazi zuenez, palestinarren aldeko keinua izan zen, **Ramadama** ospa dezaten. Berria - Mundua

Ramadanaren azken eguna ospatuko dute gaur. Berria - Mundua

Giro horretan egin ditu bonbardaketak AEBetako Armadak, hiria **Ramadango** baraualdia egiteko prestatzen ari zelarik. Berria - Mundua

Ez zuen barau-legea betetzen **Ramadanean**, ez zituen egiten otoiitzak, ez zituen aginduak betetzen. Fernando Rey

Jendeak **Ramadana** betetzearen duen bitartean ni vodka edanez mozkortzen naiz. Jon Arretxe

Herri hotz, euritsu eta fedegabe honetan **Ramadana** oso desberdina da. Urtzi Urrutikoetxea

Mutila **Ramadaneko** ilbetea bezain ederra baitzen. Patxi Zubizarreta

2 (beste izen baten ezkerrean)

Urteberri egunean eskumuturreko esmaltatu bat eman zion opari, **Ramadan** amaierako jaiegunean malakitazko lertxun txiki bat, opari-denda batean begia jo ziona. Oskar Arana

Nahi luke lehen bai lehen bara diten bondardamendu horiek, bederen **ramadan** denboran. Herria

Campania Lurraldeko Kontseiluak erabaki zuenez, arabiarrek oporrak izango dituzte **Ramadan** garaian, gauza bera txinatarrek beren Urte Bukaerako festa-egunetan, gauza bera hebraitarrek beren Pazko garaian... Anjel Lertxundi

Ez dakit beti horrela izango den, baina **Ramadan** aldian, behintzat, ikus daitezkeen kanal biak ezin asperragiagoak iruditu zaizkit. Jon Arretxe

Ramadan baraualdi hilabeteko egunik garrantzitsuena izan zen atzo. Berria - Mundua

Bihar bertan hasiko baita **Ramadan** hilabetea, musulman onak behartzen dituen goizeko bost eta erdietatik hamabi ordu geroago arte ezer jan eta edan gabe egotera. Jon Arretxe

Ramadan egun batez, edanari atxikia zen aitak galdetu zion: "Baraurik zaude, polit hori?". Pablo Sastre

ranger iz amerikar soldadu mota.

Eta inportanteena dena: **ranger**-ek galdetzen badizuete ea gidariak bultzaturik edo zuen gisara jaitsi zareten, duda gabe zuen gisara jaitsi zaretela esan -ohartarazi digu bekokia ilunduz. Patxi Zubizarreta

-Bai, **ranger**-ekin zenbat eta arazo gutxiago, hobe denon... Patxi Zubizarreta

-AEBetako **rangers** izeneko soldaduek inguratuta. Berria - Kultura

rankin ik ranking.

ranking *(orobat rankin g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegia ranking agertzen da)* **1** iz irizpideren baten araberrako sailkapena.

FIFArekin **ranking**-ean munduko hamar golegilerik onenen artean zen uruguitarra. Berria - Kirola

Mundu osoan ezagutzen diren italiar kanta guztien arteko **rankingean** bost lehenen artean dago *Arrivederci Roma* edo *La donna è mobile* kantuekin batera. Anjel Lertxundi

lazko **ranking**-a errespetatzen saiatzen gara, eta pilotari bakoitzak uneotan duen sasoa. Berria - Kirola

Beste baldintza bat da 2.400 puntu edukitzea nazioarteko **rankingean**. Berria - Kirola

Harritu nauena da EHU mobbingaren **rankingean** hain gora agertzea. Joxerra Garzia

Ez dakit mobbingaren **ranking** hori egin duten adituek zer irizpide erabili dituzten, baina nago **rankinga** ez ote den atzekoz aurrera irakurtzekoa. Joxerra Garzia

Ez Atxaga, ez Rivas ez daude Suediako akademiaren **ranking**-etan. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan)

Euskadiko txapeldunak ederki jokatu du Sevillan, eta, nahiz eta 23.a izan hasierako **ranking** zerrendan, hamargarren postuan bukatu du torneo. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

rankingean hain gora (3)

ranpa iz arrapala.

Miarritzek zuzarrak paratuko ditu bere muinoetan, **ranpak** dunetan, eskailerak amildegietan, kioskoak haitzetan, aulkiak leizeetan, galtzak mainuzaleetan. Koldo Izagirre

rantxera iz mexikar herri abestia.

14 kantu ditu, **rantxerak**, pasodobleak, kalejirak, arin-arinak eta fandangoak tartean. Orduan **rantxerari** heldu dio Ramonek, eta hor bai atera direla denak plazara, sueltoan hasieran gehienak, baina Eli eta Juan Luis ikusi ondoren lotuan ere bai beste hainbat. Berria - Kultura

La cantina, XX. mende hasierako taberna mexikarretan sortu ziren **rantxerei** begira dago egina, mirespen eta errespetu handiz. Berria - Kultura

rantxero iz rantxo bat zuzentzen duen pertsona.

Horra heldu zaizkien alde batetik bere leinua horgoa zuen indiano bat, Erbi Zalu eta John Deere, **rantxero** aberats eta puxanta. Herria

rantxito iz Venezuelako etxola apala, hiri inguruetako auzo pobreetan eraikia.

Rantxitoak dira, hala deitzen baitiete ironikoki txablei, barriotako jendearen bizilekuak. Pako Aristi

Ni Catiara iritsi nintzen eta **rantxito** bat egin nuen Urdaneta kuartelean. Pako Aristi

rantxo iz Ameriketako etxaldea, bereziki zaldiak eta behiak hazten direna.

Han ez da inguruan etxerik ez eta **rantxorik** ikusten. Herria

David AEBetako **rantxo** batean bizi da, baina bere azkeneko urteetan dagoela eta, jaioterrira, Euskal Herrira, eta gazte garaia begira jarriko da. Berria - Kultura

Hilerraren ondotik bide bat pasatzen zen, erreka ertzeko zalditegietatik atera eta **rantxoko** etxeetara joaten zena, muinoan gora. Bernardo Atxaga

Rantxoko zaldi talde bat Kaweah errekan ertzean zegoen urtean, eta cowboy sonbreiruz jantzitako gazte bat txistuka ari zitzaien. Bernardo Atxaga
Egurditan ardi **rantxo** edo "estanzia" batean izan gira bazkaltzen, eta bixtan dena bildoskia brasan errerik hango moldean eman daukute. Herria

Rantxotik paseo bat eman bitartean. Bernardo Atxaga

Denbora geneukan afalordu arte, eta geldidune bat egin dugu **rantxoko** hilerri txikian. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egon rantxo honetan (5); **rantxo honetan pasatako** (5)

rap 1 iz dantza-musika estiloa, hip-hop kulturara lotua, testu luzeak erritmo beti-berdinez eta sinkopatuz abesten direna.

Gauean, **rap** eta hip hop ikusgarria *As Crew* kolektiboarekin. Herria

Hip-hopa eta **rapa** gauza bera dira. Berria - Kultura

Gazte jendearengana ahalik eta azkarren iristeko erabili dut **rapa**, zentsurarik eta taburik gabeko hizkuntza bat erabiltzeko aukera eman duelako. Berria - Kultura

Geure ukitua eman diegu musika beltzaren hainbat adarri: hip-hopari, **rapari**, *dance hallari*, raggari eta *free style* gisa uler daitekeenari. Berria - Kultura

Bazuen beharra, Public Enemyren **rap** sakon eta kontzientziatuaren alboan, eskola zaharreko hip-hopa eta **rap** bortitza nabarmentzen baitziren AEBetako bi itsasertzetan. Berria - Kultura

Euskarazko kantu lasaietatik frantses **rapera**. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan)

Eminem **rap** musikariaren kanta ozen entzutea. Berria - Mundua

Hainbat **rap** abeslari Bushen aurkako kantu bat grabatzen ari dira. Berria - Kultura

Esaldiak ekarri die izena ahots eta aurpegi hondatu hauei, **rap** musikaren burrundarari ezin gain harturik hurbildu zaidanean. Koldo Izagirre

Gazte talde bat **rap** estiloko doinua ari zen interpretatzen. Joxemari Iturralde

Zer plazerra kantu horiek guzien entzutea, berdin **rap** moldean! Herria

Holandar idazle batek [...] ozen bere olerkiak esaten **rap** erritmoarekin. Edorta Jimenez

Rap erritmoz egindako olerki zoragarria. Edorta Jimenez

Outkast **rap** taldeak, aldiz, espero baino sari gutxiago irabazi zituen. hori eraman zuten kontzertua eta gero etxera: **rap** gau ero eta bero bat. Berria - Kultura

rapeatu, rapea, rapeatzen du ad testu luzeak erritmo beti-berdinez eta sinkopatuz abestu.

Gogorik gabe eta gaizki ahoskatuz esaten dituzte eskuarki, baina bada geltokien izenak **rapeatuz** eta alai erreztatzen dituen makinistak ere. Harkaitz Cano

Gauzak hala, Huey Morganek gitarra hartu, eta, begirada nahiz irribarre pikaroa ezin kenduz, **rapeatzeari** ekin zion indartsu. Berria - Kultura

rapelatu ik rappelatu.

rapper iz rap kantaria

. ik rapero.

Alboan *Selektah Sound System* kolektiboko lagunak izango ditu, hainbat break-dancerrekin eta **rapperekin**. Berria - Euskal Herria

rapero 1 iz rap kantaria. ik rapper.

Hip hop munduko **rapero** ezagunetarikoa gure artean. Berria - Kultura

Guruk, **rapero** hutsa izan arren (Gang Starr proiektuan), bide berriak urratu zizkion estilo honi jazzari esker Areagotzen ari den errealtatearen ezkutuko alde horrek Hollywoodeko film zioriontsu horietako askorekin baino zerkusi handiagoa du egungo hainbat **rapperoren** bertsu gordin horiekin. Berria - Kultura

2 (izenondo gisa)

Bongo danborrak, predikari **raperoak** eta ohiko arazo tekniko zahar-berriak. Berria - Mundua

rappel iz alpinismoan, gorputzean loturiko soka baten bidez horma zutak lasterka jaitea.

Elkarrekin egin zuten azken **rappela** izan zen hura. Aingeru Epaltza

rappelatu (*corpusean rapelatu soilik*), rappela, rappelatzen du ad alpinismoan, gorputzean loturiko soka baten bidez horma zutak lasterka jaitsi.

Xabik soka finkoan **rapelatu** zuela pentsatzen dut, atsedean hartzera eseriko zen eta nekeak jota lo gelditu zelakoan nago. Berria - Kirola

rapsodia iz antzinako Grezian poema epikoak abestuz herriz herri zebilen kantaria.

Poesia, hortaz, kate batean sortzen da: poeta eroarengan hasten den katea, hortik **rapsodarengana** pasatzen da, azkenean ikuslearengana iritsi den arte. Askoren artean

Baina kontua ez da mito huts, izan ere, zinetan baitziren itsu aintzinako **rapsodia**, bardo, juglare, trobadore eta beste. Patziku Perurena

Poetak jainko bat du gainetik, **rapsodak** poeta, eta ikusleak **rapsoda**. Askoren artean

rapsodia 1 iz rapsodek abesten zituzten poema zatien bilduma; gehienbat besteren obren zatiez onduriko literatura-lana.

Rapsodia: obra literarioa, bertsoz edo prosaz idatzia, osorik edo partez besteren esanaz eta adieraziaz osatua. Jon Alonso

Atzeko Etxe osoak, Van Daanek eta Peterrek salbu, irakurria du *Hungariar rapsodia*-ko trilogia. Josu Zabaleta

Ni saiatu nintzen azaltzen loturarik gabeko berbazko **rapsodia** hura hain zuzen zenbatze-sistema baten kontrakoa zela. Juan Garzia

2 irud/hed

Esperientzia, ordea, agerpenen batasun sintetikoan funtsatzen da [...] eta honen gabezia ez litzateke ezagutza izango, baizik hautemapenen **rapsodia** soila. Ibon Uribarri

3 beste obren partateko edo herri doinuak ondutako musika lana, egituraz oso askea.

Paganiniren lan baten gaineko **Rapsodia** -n, Ratxmaninovek instrumentuak orkestrara eramateko duen gaitasuna erakusten du. Berria - Kultura

Musika klasikoko egile onenaren atalean [...] saria Claudio Pietrori eman zioten **Rapsodia** gitana obragatik. Berria - Kultura

rapsodikoki *adlag* gehienbat besteren obren zatiez lotuz.

Sailkaketa hau sistematikoki egin da printzipio komun batetik abiatuta [...] eta ez da sortu **rapsodikoki** edonola ekindako adigai hutsen bilaketari esker. Ibon Uribarri

rasta¹ *iz* rastafaria.

Rasta da, oso erlijiosoa, Biblia alboan izaten du beti, baina aldi berean oso politikoa da, Bob Marleyren eskolakoa. Berria - Kultura

Hori konstante bat izan da bidaia osoan, gu gure kulturarekin joan gara, ez gara **rastak**, ez gara sinisdunak, gure asmoa ez zen sustraidun reggae musikari omenaldia egitea. Berria - Kultura

Baina nola aixkidea, nola eskaini diezaiokie mediku batek -izango zen hura italiar titien miazkatzailerren bat- nola eskaini **rasta** bati kimioterapia? Harkaitz Cano

Neska punk **rasta** barrako mutur batetik bestera. Paddy Rekalde

Gero, Fatiharen berriz gurutzatzeko plazerrak, **rasta** -gizon amoltsuaren berotasunaren oroitzapenarekin batera baketu ninduen. Itxaro Borda

2 (beste izen baten ezkerrean)

Rasta hizkera: «Hizkuntzak barne bizitza du eta logika propio bat» (Ikael Tafari). Berria - Kultura

Rasta hiztegia. Berria - Kultura

Igandean Sadarren izango da Davids, bere betaurreko eta **rasta** ile eta guzti. Berria - Kirola

rasta² *iz* rastafariak eramaten duten txirikorda.

Ikusi zuten azken aldiari bi piercing zituen, bat sudurrean eta bestea belarran, eta ilean **rasta** bat zuen Berria - Euskal Herria

rasta³

1 *rasta-rasta* (onomatopeia)

Labana eta ogiaren otarretxo hartu, eta ogia **rasta-rasta** ebaki eta otarrean pilatzen ditut zatiak. Anjel Lertxundi

rastafari *1 iz* Haile Selassie jainkotzat hartzeneta gurtzen duen jamaikar talte erlijiosoko kidea.

Beltz batzuek artilezko gorro koloretua daramate buruan edo txirikordak airean, eta **rastafarien** errebelazioa konplutuko delakoan doaz Beholdengo kale luzean barrena itsasbartzerrera, eta reggae erdikantatuz gogoratzen dute Babilon. Joseba Sarrionandia

Goizaldeko hirurak baino ez ziren eta batek daki zer gerta zitekeen gaua amaitu baino lehen, nahiz eta **rastafariarekin** egindako lehenbiziko ahalegina hutsaren hurrengoan gelditu. Sonia Gonzalez

2 *izond*

Sua, kosmologia **rastafarian** ezinbesteko osagaia. Berria - Kultura

rastafariar *izond* rastafariena, rastafariari dagokiena.

Beste Larsson bat zen: **rastafariar** orrazkera zuen, eta urte eta eskarmentu gutxiago. Berria - Kirola

rastafarismo *iz* rastafarien higikundea.

Hasteko Ijahman Levi, Jamaikako kantari espirituala, **rastafarismoaren** bidetik aritzen dena. Berria - Kultura

rastró *iz* kukuso merkatua.

Ni plaza horretako **rastrora** igandero joaten naiz liburu merkeak (eta askotan oso onak) erostera. Gotzon Garate

ratio *1 iz* bi magnitude edo kopuruaren arteko arrazioa.

Ratio horiek inoiz izan diren altuenak direla gaineratu zuen. Berria - Ekonomia

Kopuruarena ez da sail bat atxiki edo bertan behera uzteko erabiltzen dugun **ratio** bakarra. Berria - Euskal Herria

Gaur egun [Nafarroan] eremu mistoan D ereduko ikasgelak jartzeko ezarrita dauden ratioak berriki daitezela, **ratio** horiek oztopo baitira D ereduko ikasgelak jartzeko. Berria - Euskal Herria

Mozkin osoa banatuko du akziodunen artean, *pay out* **ratio** delakoa bere maximoan jarriz, %100ean alegia. Berria - Ekonomia

2 (hitz elkartuetan)

Hemen errentagarritasun, kalitate eta produktibitate **ratio** oso onak baititugu. Berria - Ekonomia

ravioli *iz* italiar jakia, pastazko lauki bete.

Kapoiak ñoki eta **ravioliekin** jaten: halaxe irudikatu gintuen XIV. mendeko Giovanni Boccacciok euskaldunok. Berria - Kultura

Halako **'ravioli'** txiki bezalakoak dira... Kristonak! Ramuntxo Etxeberri

razial ik arrazial.

razialki ik **arrazialki**.

raziobitalismo (*orobat **razio-bitalismo***) iz arrazoi bitalaren filosofia, J. Ortega y Gasset-ek sortua.

Karl Jaspers-en psikologia existentzialistan, Emmanuel Lévinas-en beste (lako) aren ontologian, José Ortega y Gasset-en **raziobitalismoan**, Gabriel Marcel-en existentzialismo kristauan. **Askoren artean**

Ikerlan franko badago, saiotoxo multzo horretan Ortega-ren "sistema filosofikoaren" lehen formulazioa induskatu guran: haren ezagutza teoria, **razio-bitalismoa**, perspektibismoa, fenomenologia, etab. **Joxe Azurmendi**

razional ik **arrazional**.

razionalismo ik **arrazionalismo**.

razionalista ik **arrazionalista**.

razionalitate ik **arrazionalitate**.

razionalizatu ik **arrazionalizatu**.

razionalizazio ik **arrazionalizazio**.

razionalki ik **arrazionalki**.

razionaltasun ik **arrazionaltasun**.

razionamentu ik **errazionamentu**.

razzia 1 iz etsaien lurraldean sartzea, hura desegin eta harrapakatzeko.

Tribu edo estatu indartsuenek egiten zituzten **razziak**, eta haiexek saltzen zizkieten gatibuak europarrei, edota merkatarri afrikarren esku uzten zituzten, eta haiek berriz saltzen zituzten, mozkin handien truke. **Koro Navarro**

Makhno Ekaterinoslav eta Poltava aldean dabil **razziak** egiten. **Pablo Sastre**

Mutiko gazte-gazteak, **razzietan** hartuak, zernahiren eske jiten zitzaizkigun. **Marzel Etxehandi**

2 irud/hed

Bi urte geroagoko **razzia** polizialetan ehunka iruindar gazte atxilotu zituzten. **Berria - Euskal Herria**

Aljeriar haien kontrako Poliziaren **razziak** etengabeak izan ziren, lar ezkutatu barik, eta bortizkeria hark hainbat hildako ekarri zituen. **Paddy Rekalde**

Sasoi hartan indar handia zuten ultraeskumako taldeek eta horiek ere euren **razziak** egiten omen zituzten *El balcon de la Lola* inguruetan. **Berria - Euskal Herria**

Artazuriketa gertakari kultural gisa aztertzeke lana hautatu genuenean, antropologiako irakasleak "datuen **razzia**" deitzen zuen lanaren lehendabiziko faseari ekin genion. **Anjel Lertxundi**

re iz musika-eskalako hirugarren nota, germaniar eskalako D letraren kidea.

Melodikan, tonu naturalean afinaturik baitzegoen, **re** bilatu, eta harriak burdina ateratako nota bera jotzen zuela baieztatu nuen, harriturik. **Juan Kruz Igerabide**

Erloju zeremoniatsuak ordu jotzeari eutsi dio: mi-do-**re**-sol... sol-**re**-mi-do. **Txillardegi**

Seme baten heriotzaren ostean konposatutako koarteto bat, **Re** minorren, izugarria da, erabat dramatikoa. **Berria - Kultura**

Jagoba Fanlok haren Biolontxelorako suitea **re** minorrean obra jo zuen. **Berria - Kultura**

Arriagaren obra bi interpretatu ditu BOSek: Esklabo zoriontsuak eta **Re** nagusiko Sinfonia. **Berria - Kultura**

Piotr Txaikovskiren (1840-1893) Biolinarako eta orkestrarako **Re** maiorreko kontzertuarekin amaituko du BOSek emanaldia. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

re maiorrean (3); **re minorrean** (8)

reafirmazio iz berrespena.

Reafirmazio ekintza oso gutxi dira hemen. **Harkaitz Cano**

realitate ik **errealitate**.

reality

1 reality-show (orobat **reality-show** g.er.) telebista-programa, gizarteko jendearen arazoak, askotan eskandalagarriak, aurkezten dituen.

Denetan ikusiko duzu telebista piztuta, inor begira ez dagoela, **reality show** liluragarriak ari eta ari. A3ko **reality show** morbosoa. *Gran Hermano, Confianza Ciega* eta Espainiako telebistetako beste **reality show** batzuetan errealizazio lana egin izan du Kobeagak, eta *Vaya Semanita* ETB2ko saioan gidoilari ibili zen, Nacho Vigalondorekin batera. **Edorta Agirre**

Halako gertaera bat ezin da bihurtu **«reality-show»**, tele-zaborraren gertaera hutsal edo morboa eta eskandalua nahi duten kazetaritza artikulu». **Berria - Euskal Herria**

realizazio ik **errealizazio**.

realzale ik **errealzale**.

rebajatu ik **errebajatu**.

rebalida ik **errebaldida**.

rebaluazio ik **errebaluazio**.

reboltoso *iz* bihurria.

Zu akрата bat zara, beno, lehen **reboltoso** samarra zinen, baina zure azken artikuluetan ortodoxo ikusi zaitut. **Pako Aristi**

reboluzio ik **erreboluzio**.

redio ik **redios**.

redios (**33** agerraldi, **11** liburutan; orobat **erredios 13** agerraldi, **3** liburu eta artikulu **1**ean; **redio 9** agerraldi, **2** liburu **1**ean eta **erredio** g.er.) *interj* haserrea, ezustekoa edo nahigabea adierazten duen hitza.

"Redios! hitzordua!" ahoskatzen duzu. **Ramuntxo Etxeberri**

Erredios! nolako plazera ematen didan ipurdi xarmant honek. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

- **Redios!** -oihukatu zion honek, aldamenean ikusi zuenean, mamu bat agertu balitzaio bezain harrিতua-. **Elena Touyarou**

Nik behintzat ezin dut gehiago! **Erredios!** kabuendios! jainko putarra! korrituko naiz!... **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

- **Redio**, Eduardo, berriz ere ziminotua! **Aingeru Epaltza**

Baina etxetik bota, hori ere ez, **erredios!**, oinak aurretik ditudala ez bada behintzat. **Karlos Linazasoro**

-Inork ez luke esango bost egunetarako bakarrik goazenik, **redios** -esan zuen Alexek, barrezka, batzuen motxila erraldoiak ikustean. **Fernando Morillo**

-Atertu dik, baina kamioi kanpoalde honetan hezurretaraino sartzen duk hotza, **erredio!** **Urtzi Urrutikoeetxea**

Hasieratik genekien hori, ez geneukala zeregin handirik unean unekotik aurrera, baina merezi zuten haiek, **redios!** **Urtzi Urrutikoeetxea**

-Zozoa dirudik batzuetan, **redios**. **Hasier Etxeberria**

redioska *adlag* **redios** esaten.

Redioska. **Hasier Etxeberria**

reekilibratu, reekilibra, reekilibratzen du *ad* berrorekatu.

Sobera buruko min dutanean ordian joaten niz mendi aldera edo itsas bazterrerat edo, bakartasun batean berriz **reekilibratzeko**. **Menane Oxandabartz**

reenkarnatu, reenkarña, reenkarnatzen da *ad* berraragitu.

Ni **reenkarnatuko** banintz obeditzeko nintzateke... **Sonia Gonzalez**

referendum ik **erreferendum**.

referentzia ik **erreferentzia**.

refranero *iz* atsoitiz bilduna.

Ondarearen izenean, ikusten duzue, esaterako, El País gaztelerako hazi oneko **refranerotik** "[...]" edota Le Monde "[...]" berreskuratzen. **Iñigo Aranbarri**

reggae 1 *iz* jamaikar jatorriko musika-estiloa, hango herri erritmoak rockarekin eta soularekin nahaste ematen dituena.

Reggaea, duba, jazza, funka eta beste estilo batzuk nahasten ditu koktel bero eta dantzagarrian. **Berria - Kultura**

Gure musika, giro sargoritsuari ezin hobeto jarria: ragga, dub, jungle, **reggae** gozoa... **Paddy Rekalde**

Hemen musika afrikarra jartzen ditek, eta **reggaea**, hip-hop pixka bat, gurea bezain ona duk haiena ere! **Pako Aristi**

Reggaearen berotasuna. **Berria - Kultura**

Baffleetatik **reggaea** entzuten zen lehertzeraino. **Unai Iturriaga**

Bluefieldsen gaude eta moilan ere **reggae** entzuten da. **Joseba Sarrionandia**

Jon **reggaea** dantzatzen, kanuto bat eskuan; Ane giriekin solasean. **Unai Iturriaga**

Trikitixarekin asko harritu ziren [...] baina **reggaea** ere herrikoa da. **Berria - Kultura**

2 (izen baten ezkerrean)

Inguru hartan beti izan du arrakasta Elvisek musikak, ulertzekoa da, beraz, hainbat **reggae** artistak euren ukitua eman izana. **Berria - Kultura**

Reggae doinu batean, honela kantatu zuten: [...]. **Jon Muñoz**

Absurdoaren bidezko arrazoiketa baten ondorioa, **reggae** airez emana. **Jon Muñoz**

Reggae kantu tradizionalak, batzuk ingelesez eta beste batzuk euskaraz. **Berria - Kultura**

Reggae eta batez ere dub giroetan abiatuta, Massive Attack taldearena proposamen berritzailea izan zen. **Berria - Kultura**

Adituek "Bob Marley bolikostarra" deitzen dute, **reggae** musika nor nahi bezain hobeki plazaratzen baitu. **Herria**

Larunbat aratsean, toki berean, **reggae** kontzertua Lee Perry-rekin. **Herria**

Ikusgarria aitzin, Steppin'Jogo taldeak **reggae** musikaldi bat eskainiko du. **Herria**

Clement Sir Coxsonne Dodd **reggae** ekoizle ezaguna 72 urte zituela hil da, Jamaikan. **Berria - Kultura**

Ke No Falte **reggae** taldean hasi ondoan, *Etsaiak* taldearekin segitu zuen. **Herria**

Benetako **reggae** gaua. **Berria - Kultura**

3 reggae dub

The Clash-en **reggae dub** indartsu hura ekarriko dugu Txireneko uhinetara. **Paddy Rekalde**

Reggae dub honen doinuak harrapatu egiten gaitu, ez dugu ukatuko, zertarako? **Paddy Rekalde**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

reggae doinuak (3); **reggae musika** (4); **reggae musikaren** (3); **reggae musikari** (3)

reggaelari *iz* reggae kantaria.

Lehen partean: *Root'System* taldea (sei euskal **reggaelari**). **Herria**

Irailaren 23an, ortzirale aratseko 9etan, Yassa **reggaelaria** St Laurent de Gossen. **Herria**

registradora *izond* erregistratzailea.

Bizikleten eskeletoak, elektrodomestikoen karkasak, kaja **registradorak**, fregaderoak, sukalde bateriak **Pablo Sastre**

regizida *iz* erregezko baten hiltzailea.

Traidoreen, **regiziden**, Estatuaren aurka matxinatzen direnen eta gerra garaian etsaien lerroetara pasatzen direnen kasuan bezala. **Esteban Antxustegi**

rekete ik **errekete**.

reklutatu ik **erreklutatu**.

rekortable *iz* ebakina.

Umetako gauzak ziren **rekortable** haiek. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gogoratzen **rekortableak**? **Xabier Mendiguren Elizegi**

rekreazio ik **errekreazio**.

rektifikatu ik **errektifikatu**.

relax *iz* psikikoki edo fisikoki lasaitzea, erlaxazioa.

Txofanni, hik lasaitu egin behar duk, **relax**. **Fernando Rey**

Relax, Elpides, zure aldetik pentsa ezazu, arren ezagutu zure burua! **Itxaro Borda**

remake 1 *iz* zinema- edo musika-lan edo kideko baten bertsio berria.

Body snatchers, Don Siegelen zientzia fikziozko film arrakastatsua **remake** -a egin zuen. **Berria - Harian**

-Itzulera lazgarria kanpinetik, lapurketa eta garaitikoak, beraz, John Forden *Diligentzia*-ren **remake** txar bat baizik ez zituan. **Aingeru Epaltza**

2 irud/hed

Ahazturaz eta **remakez**, memoriak zein ideologiak denak nahastu eta berdindu dira. **Joxe Azurmendi**

remanente *izond* gelditzen dena.

Goazen mementu batez Antartidara, eta han, erradiazio **remanentea**, urteko, ezkorra da, galerakoa, eta noski, lurra eta airea biak hotzak. Pello Zabala

Enuntziatuak **remanenteak** direla esatea ez da esatea oroimenaren eremuan geratzen direla edo berriro aurki daitekeela eurek zer esan gura duten. Xabier Arregi

remanentzia *iz* zerbaiten nolakotasunak irautea.

Azterketa honek suposatzen du enuntziatuak kontuan hartzen direla eurei dagokien **remanentzian** (rémanence) eta **remanentzia** hau ez da beti egunera daitekeen iragandako formulazioaren gertaerara jotzea. Xabier Arregi

Remanentzia eskubide osoz enuntziatuari dagokio, denboran zehar iraute hori bakarrik une baterako egindako existentzia baten luzapen akzidentala edo zorionekoa izan arren. Xabier Arregi

remix *iz* abesti baten pisten bernahasketa, estudio batean egiten dena abestiari itxura berri bat emateko edo hots kalitatea hobetzeko, eta batez ere abestia dantzagarri bihurtzeko.

Bat aipatze aldera, Mad Professor bera, Muguruzaren *Urrun* kantuaren **remix** -a egin zuena. Berria - Kultura

Danny the dog filmerako musikara zabaltzen da **remix** eta aldaera alternatiboz osatutako luxuzko edizioan. Berria - Kultura

Soul, rithm'and' blues, eta horien inguruetan hazitako hainbat estilotako abesti ezagunen interes eskaseko **re**-mixa baino ez zigun eskaini. Berria - Kultura

CDan, bere kantuen eta beste lagun batzuen (Afrika, Sorkun, Overbass) hainbat **remix** eta bestelako proiektuetarako egindako kantuak sartu ditu Berria - Kultura

renaniar *(corpusean rhenaniar soilik) izlag/iz* Renaniakoa, Renaniari dagokiona; Renaniako herritarra.

Biana beraz orain, "mendixka batean hiri bat", König von Vach hamabosgarren mendeko **rhenaniar** zaldunak erraiten duen arabera. Piarres Aintziart

renano *izlag/iz* Renaniarra.

Kapitalismoaren bi tradizio bereizi behar dira: tradizio anglosaxoiko kapitalismoa batetik, eta **renanoa** edo kontinental batetik. Iñaki Heras

Kapitalismo **renanoa**, berriz, ez da horren erradikala. Iñaki Heras

Renanoen, flamenkoen, boloñatarren, bretoien, eskoziarren, normandiarren edota horiek guztien oihuak eta kalapitak. Jon Alonso

repentismo *iz* doinu baten hitzak inprobisatzea.

Bizitzaren aurreko jarrera baten metaforatzat ere har daiteke **repentismoa**, inprobisazioa; merezi luke gai hori jorratzeak, baina ur sakon horietan sartzea ez da liburu honetako zeregina. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

repentista *(orobat errepentista) iz* doinu baten hitzak inprobisatzen dituen kantaria.

Ez dakit nik gaiak berak hala eskatzen duelako den, baina bai Kuban eta bai gurean, ikerkuntzara murgiltzen diren gutxietan asko bertsogileak edo **repentistak** dira.

Andoni Egaña

Norberarenganako konfiantza beharrezko jarrera da inprobisatzaile, **repentista** edo bertsolariarentzat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Esaterako, Aitor Sarriegi beasaindarrak eta Unai Muñoz lasartearrak kubako **errepentistek** ohikoa duten segidillan egindakoa. Berria - Kultura

repetitu ik **er**repetitu.

representatibo ik **er**representatibo.

reptilineo *izond* adkor

Ene memoria sakonagoenari lotua den hizkuntza denez, buru muina **"reptilineoari"** lotua den hizkuntza da euskara Ana Urkiza

requete ik **er**requete.

requiem 1 *iz* hilen aldeko otoitza, hil mezetan esaten dena.

Defuntuen zerbitzua genuke lardastuko, **requiem** batez opaturik hala hilari atseden, bakean joaniko arimekin berdinduz. Juan Garzia

-Heldu da nire **Requiemaren** ordua! -esan nion neure buruari R-ren hurbiltasunaz baliatuz. Bernardo Atxaga

· Orduan, anai Konradok oso gogoz onartu zuen haren eskaria eta Gure Aita, **requiem aeternam** eta guzti, errezatu zuen. Askoren artean

2 irud/hed

Requiem filosofiko nihilistiko baten antzekoa da. Berria - Kultura

3 hil mezaen testua oinarri harturik ontzen den musika-lana.

Requiema, garai bateko Europaren hil-kanta. Felipe Juaristi

Mozarten azken lana izan zen **Requiem** -a. Imanol Zurutuza

Berrogei musikariren orkestrak lagundu zion heriotzaren festan, Brahmsen **Requiem** alemanaren zazpigarren atala joz. Felipe Juaristi

Gauak ekarritako samin urrunetik sortu da *Campanades a morts (Hil ezkilak)*, sarraskiaren testigantza betiko gordeko duen **requiem** gogorra. Berria - Harian

Negar kantaria, **requiem** konpositorea, hilobi apaintzailea, hileta arropazaina, hilotz banatzailea. Berria - Kultura

resaka ik **er**resaka.

residentetza *iz* egoiliarren egoera.

Residentetzarako bozen bigarren txandan iruzurra izan zela salatu eta astebetera, oposizioaren hautagai Viktor Justxenkoren jarraitzaileek Kiev hiriburuko plaza eta kale nagusietan protesta egiten segitzen zuten atzo. **Berria - Mundua**

residentzia ik **erresidentzia**.

resignazio *iz* etsipena, etsi ona.

Bazen adibidez begirada mota bat damua adierazten ez zuena eta desatsegintasuna adierazten ez zuena eta **resignazioa** adierazten ez zuena eta aukera okerra egin izanaren zalantza adierazten ez zuena eta lotsa adierazten ez zuena, baina apur bat hauek denak adierazten zituen. **Harkaitz Cano**

reskat ik **erreskate**.

reskatatu ik **erreskatatu**.

reskate ik **erreskate**.

resma *iz* bostehun paper orri tolestuko multzoa.

Laster bukatu zuten ia denek, baina nik, amorruz beteta ikasi bainuen, paper **resmak** eta **resmak** idatzi nituen eta eman ziguten denboraren ia azken minuturaino luzatu nintzen. **Karlos Zabala**

Aldameneko gelatzo batean, leihorik gabea, burdinazko pieza batzuk eta **"resma"** dozena batzuk, estraza paperetan bildurik. **Txillardegi**

respetatu ik **errespetatu**.

restaurant (*orobat errestaurant*) *iz* jatetxea.

Gero, konferentzia bukatutakoan, ezagutzen ez nuen **restaurant** batera joan nintzen, bakarrik. **Joxe Austin Arrieta**

Orain, seguruenik, hoteleko **restaurantean** egongo da afaltzen. **Joxemari Iturralde**

Hire aitak ez nauela nehoiz **errestaurantera** gonbidatu. **Itxaro Borda**

Errestauranteko kontua kreditu txartelarekin ordaindu zuen Cesarrek eta handik lortu zuen Veronicak bere sinadura kontratua faltsutzeko. **Harkaitz Cano**

Aitak hotela bazuen han: behean **restauranta** eta goiko estaian gela bat, lau ohe zituen. **Pablo Sastre**

Treneko **restaurantean** ari zen langile bati. **Gotzon Garate**

restaurazio ik **errestaurazio**.

retikulozito *iz* heldutasuna erabat iritsi ez duen globulo gorria.

Retikulozitoak globulu gorri berriak dira. **Berria - Kirola**

Arraunlariek odolean duten hemoglobina, hematokrito, **retikulozito**, proteina eta beste hainbat elementu neurtuko dira, arraunlari bakoitzaren pisuarekin alderatu, eta kirolak berak eskatzen duen esfortzu mota eta intentsitatearekin parekatuta, mugak ezarriko dira. **Berria - Kirola**

Gorka Gonzalezen tasak **retikulozito** horiek gorputzak bere kabuz ez dituela sortu esan nahi du. **Berria - Kirola**

Hematokrito eta hemoglobina gain, beste parametro batzuk ere neurtuko dituzte; besteak beste, **retikulozito** edo proteina maila kontuan hartuko dituzte, eta pisuarekin eta altuerarekin alderatuko dituzte ondorioak ateratzeko. **Berria - Kirola**

reto-romano *iz* Italia eta Suitza arteko mugako eta inguruetako zenbait eremutan mintzatzen den hizkuntza erromanikoa.

Italian lau [hizkuntza], alemana, frantsesa, **reto-romano** delakoa eta italiara ofiziala, Toskanakoa. **Mikel Hernandez Abaitua**

retokatu, retoka, retokatzen du *ad* ukituak egin.

Ximurak ezkututzen, ilea ondo txukuntzen, ezpainen gorria **retokatzen**, begietako pintura berrezartzen eta perfume gehixeago botatzen aritu ondoren irten zenean, arrosa sorta bat eta xanpain botila hotza ikusi zituen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

retro 1 *izond*

Billbop-ek soinu **retro**-a du, nahiz eta egungo teknologiaz baliatuta grabatu duten. **Berria - Kultura**

2 (izen baten ezkerrean)

Igandean aldiz, goizago emana da hitzordua, Gérard Luc-en orkestrarekin **retro** dantzaldiarentzat arratsaldeko lauak eta erditan. **Herria**

retroaktibo *izond* atzeraeragina duena, atzeraeraginezkoa.

Igoerak zor dizkigute, **retroaktiboak**, 1997tik dauzkagu kobraketak atzeratuta. **Pako Aristi**

retobiral ik **erretobiral**.

retobisore ik **erretobisore**.

retrogrado *izond* atzerakoia; atzeranzkoa.

Euskara ez baita naturalki baserritar ezjakinen eta apaiz **retrogradoen** hizkuntza, ez lehen, ez orain eta, espero dezagun, ez gero. Berria - Kultura

retrospektibo ik **erretrospektibo**.

retrospekzio ik **erretrospekzio**.

reuma ik **erreuma**.

reumatiko ik **erreumatiko**.

rhenaniar ik **renaniar**.

rhytm n'blues *iz* aurreko mendeko berrogeietan blues-etik eratorririko musika-estiloa, jazzaren, soularen eta gospelaren eraginak dituena.

Reggaearen, **rhytm** n'blues-aren, dancehallaren eta lovers rock-aren elementuekin egiten du bere musika. Etxean aitaren bildumako Ameriketako **rhytm** n'blues diskoak entzuten zituen: Sam Cooke, Otis Redding, Marvin Gaye... eta jazz. Berria - Kultura

Ameriketako **rhytm** n'bluesaren eta Jamaikako tradizioaren erdian hasi zen, bada, bere ska eta reggaea egiten. Berria - Kultura

ribeiro *iz* Ourenseko Ribeiro bailarako ardoa.

Gero **ribeiroa** banatzen dugu, eta olagarroa eskaintzen dugu, galegoek bakarrik prestatzen dakiten dastamenari gozo-mina eta hortzari sendo-bera zaion olagarro bikain hori. Koldo Izagirre

Taloa, sagardoa, olagarroa, **ribeiroa**, pantumaca eta cava dastatzeko aukera izango da, besteak beste, gune horietan. Berria - Kultura

Txillardegik [*Leturiaren egunkari ezkutua*] Galizian ondu baitzuen, Ferrolgo soldaduskan, 1956an, lanpernak eta **Ribeiroa** lagun. Berria - Kultura

rictus ik **riktus**.

ridikulizatu ik **eridikulizatu**.

ridikulo ik **erridikulu**.

ridikulu ik **eridikulu**.

rifampicina ik **rifampizina**.

rifampizina (*orobat rifampicina*) *iz* *Mycobacteriaceae* familiako bakterioek eragindako eritasunak sendatzeko erabiltzen den antibiotikoa.

Azken 15 urteetan 12 milioi legendarun sendatu dira dapsona, **rifampizina** eta klofazimina nahastuz osatutako tratamenduari esker. Berria - Gaiak

Hipertentsioarengatik hartzen zituen botiken ondorioak indargabetzen ditu **Rifampicinak**. Berria - Mundua

Rifampicina botikaren arrastoak ere ez dituztela aurkitu zehaztu zuten azterketan. Berria - Mundua

rifle ik **erifle**.

riftar *izlag/iz* Rifekoa, Rifi dagokiona; Rifeko herritarra.

Mahsudek 1919an eta **riftarrek** 1925ean erakutsitako *expertise* militarren maila lortua duten mugaz bestaldeko barbaroak. Iñaki Mendiguren

Riftarrek hain tarte txikiz huts egin zuten ahaleginean arrakasta izan balute, Mediterraneoaren hegoaldeko ertzean Frantziak zuen inperio osoa jarriko zuketean. Iñaki Mendiguren

rigor

1 **rigor mortis** latinezko esapidea, gorpuk jasaten duen zurruntasuna adierazten duena.

Muskuluetan normalean dagoen ATParekin, segundo batzuetako esfortzua baino ez litzateke egin ahal izango. ATP kopurua gutxituz gero, zurrundu egiten da muskula: **rigor mortis** delakoan, adibidez. [Irene Aldasoro](#)

Gauean zehar, **rigor mortis** -ak zurrundu egin zituen gorputzak. [Oskar Arana](#)

Eguzki beroak lehortu egin zuen Setheren soinekoa, zurrundu, **rigor mortis** bezala. [Anton Garikano](#)

rigorista

izond diziplina eta moral kontuetan oso zorrotza dena.

Hain baita eroso **rigorista** izatea bozez! [Jon Muñoz](#)

riktus

 (*orobat rictus*) *iz* ezpainen uzkurdura, barre azala edo saminezko egoera adierazten duena.

Ezpain ertzean **riktus** bat ote zuen iruditu zitzaizun. [Koldo Izagirre](#)

Martak bere orbitatik aterata zeuzkan begiak eta bere **rictusean** gutxitan sumatzen zitzaion ezpain-dardara bat azaleratzen zen [Harkaitz Cano](#)

rima ik **erima**.

rimel ik **erimel**.

rimeldun ik **erimeldun**.

ring

iz lauki goratua, hiru soka lerroz itxia, boxeolariak eta borrokalariek erabiltzen dutena.

Lurretik metro t'erdia goratua zegoen **ring** -aren zoru ertzean zegoen Zurrutas, beso biak beheko sokatik eskegita. [Josu Landa](#)

Hilketaren agertokia hesi batekin ixten ari ziren, **ring** bat sokarekin ixten den bezala. [Joxean Agirre](#)

Gabarra baten gainean dago paratuta **ring** -a. [Berria - Kultura](#)

Cassius Clayk, konbatea hasi orduko, erdi dantzan paseatu zuen Madison Square Garden ikaragarri hartako **ring** argitsua. [Joseba Sarrionandia](#)

Albo batera utzi zituen gimnasioko **ring** biak eta zenbait punching-ball dantzari, lurrera begira. nik, nekien moduan egiten nuen dantzan **ringean**. [Paddy Rekalde](#)

Pixkana-pixkanaka, arinago zebilzkidan oinak **ring** gainean. [Iñigo Aranbarri](#)

Borrokarik gogorrenak ez omen zituen borrokaleku gainean egiten, eta sudur txapal hura ez zela **ring** baten gainean jasotako kolpe txar baten ondorioa. [Inazio Mujika Iraola](#)

Lau txakur txikiren truke igotzen zen **ring** gainera, kolpe oldearen esperoan. [Paddy Rekalde](#)

Ringetara itzuliko da, azken hamalau hilabeteetan borroka bakarria egin gabe egon ostean. [Berria - Kirola](#)

Orduan, Peppone bera igo da **ringera** eta mutur-joka hasi da garailearekin. [Koldo Biguri](#)

Legez kanpoko haurdunaldi-etenak egiten ziren kirofano bateko fokua zirudien gehiago **ring** gaineko hark. [Harkaitz Cano](#)

Roberto betiko lekuan zegoen [...] **ringeko** izerdi lurrundua usnatzeko aski gertu. [Harkaitz Cano](#)

Bilboko boxing bat kenduta hura zen Bizkaia osoan **ring** pareta zuen bakarria, eta une hartan animazio handia zegoen borrokarako laukietako nagusian. [Josu Landa](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ring gaineko (3)

rinitis

iz sudur zuloetako muki mintzaren hantura.

Sudur-barrunbeetako mukosaren hantura da **rinitisa**, eta, gehienetan, gehiegizko muki jarioarekin batera agertzen da. [Berria - Gaiak](#)

Umeen %15ek dute **rinitis** alergikoa. [Berria - Gaiak](#)

Asmaz, **rinitisaz**, eta laringeko minbiziaz. [Berria - Gaiak](#)

ripio

iz neurtitz lerroa osatzeko betegarria.

Ripiorik gabeko soneto bat izaten da, eskuarki, baina oso-osorik **ripio** hutsa dena: hots, sobrakin bat, alferrikako den zerbait. [Juan Garzia](#)

risotto

 (*orobat rissotto g.er.*) *iz* italiar janaria, oinarri gisa arrosa duena.

Arrozari erantsitakoa nolako, **risottoa** halako. [Anjel Lertxundi](#)

-Eragiteko moduan datza **risottoaren** gakoa. [Jon Muñoz](#)

Kirtenik gabeko zartagin batera aldatu **risottoa**, gazta parmesanoz hautsezatu, azpil batean jarri dena, eta bere izter gainean ipini zuen azpila. [Jon Muñoz](#)

Risotto platerkada batez gain, lau garagardo hartu zituen hozkailutik. [Lutxo Egia](#)

Risottoa zerbitzatu zuen, ondo krematsua. [Jon Muñoz](#)

Risottoak eragindako gogoetek eta bazkalosteko digestioaren murmua arindu beharrak Giardino Realera eraman naute. [Anjel Lertxundi](#)

risotto ik **risotto**.

ristretto

iz kafe hutsezko harraldi txiki kontzentratua.

Ez diot inori inoiz **ristretto** hitza entzun Italian kafe bat eskatzeko, inon ez dute kafea han bezala egiten, hain kantitate txikian, hain kontzentratuta, **ristrettoa**, Norak beti

ritual ik **erritual**.

rivoflabina iz B2 bitaminaren izena.

Gelatinazko kapsula bat B2 bitaminaz (**rivoflabina**) bete zuten, eta ikusi zuten gelatinak babestu egiten duela intsulina, harik eta hesteetara iristen den arte. [Berria - Gaiak](#)

rizino iz zuhaixka hosto-handia, fruitu arantzatsuak eta hazi oliotsuak ematen dituena.

Ez dira, hain justu, politak kontatzen dituzten istorioak, jende egurtuarenak, hortzak estututa litro bat **rizino** olio irenstera behartu eta agonia makaleko orduak hesteak bihurriturik sufritzera derrigortutako jendearenak. [Ramon Etxezarreta](#)

roastbeef (*orobat **roast(-)beef** eta **rosbif***) iz behi aragi gutxi errea, xerretan zerbitzatzen dena.

Roastbeef hotz on askoa. [Anton Garikano](#)

Roast -beef gero eta erreago baten kolore aukeran belztu xamarra hartzen zuen britainiar hil-hurrenaren aurpegiak. [Joxan Elozegi](#)

Ham and eggs, salami errazio bat, **roastbeef** errazio bat, bi arrautza katilu batean... [Anton Garikano](#)

Indian ehun mila **rosbif** -jale eta brandy-sodazale britainiarrek arraza ario bereko berrehun eta berrogeita hamar milioi barazkijale urzale mendean eduki zituzten. [Xabier Olarra](#)

robot (**221** agerraldi, **22** liburu eta **69** artikulutan; orobat **errobot 9** agerraldi, **6** liburu eta **3** artikulutan; *Euskaltzaindiaren Hiztegian **robot** agertzen da*) **1** iz giza itxurako makina, gigitzeko eta aritzeko gai dena. **ikautomata**.

Agian badaude munduak non Greta bezalako izakiak **robotak** diren. [Askoren artean](#)

Izaki sexugabe urdinak dira, **robotak** iduri. [Xabier Montoia](#)

Lantegian **robot** bihurtzeko patuaren aurka borrokatzean, sindikatuetan **robot** gisa jarduteko patua ezarri zioten beren buruari. [Iñaki Mendiguren](#)

Nik ez nion aldizkari ilustratuek irudikatu ohi dituzten **roboten** antzekorik aipatu, lastertasun handiko kalkulagailua baizik. [Joxe Austin Arrieta](#)

Robot bertsolaria zen orduko hartan Egaña, Lopategik egina hain zuzen ere. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Bi mila urte gizatasun, bi mila urte jakinduria, zakurkeria, ilusio, oinaze, zer eta, azkenean **robot** itxurako haur kontsumitzaile huts baten lortzeko. [Patziku Perurena](#)

Zuek muskulua besterik ez duten **robot** horiek desio dituzue, noski. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Errobot baten moduan erreakzionatu zuen Josebak, arimarik gabe. [Fernando Morillo](#)

2 egiteko eta eragiketa jakin batzuek gizakiaren ordegin egin ditzakeen mekanismo automatikoa.

Batetik gizakiak eta bestetik **robotak** eta androideak bereizten zituen muga ezabatua dago, eta gizakiek ahaztua dute gizaki direla. [Berria - Kultura](#)

'Spirit' eta 'Opportunity' **robotak** orain bi urte iritsi ziren Martera, NASAREN eskutik. [Berria - Gaiak](#)

Txorizoak, ordenagailuak edota autoak ekoizteko **robotak**. [Berria - Ekonomia](#)

Ekoizpen kateetarako **robotak** saltzen dizkie autogileei: Renaulti, Fordi eta beste. [Berria - Ekonomia](#)

Da Vinci **robotak** hiru beso artikulatu ditu, medikuaren eskuturrak egin ezingo lituzkeen mugimenduak egiteko. [Berria - Gaiak](#)

Kirurgialariak kontsola baten bidez gidatzen du **robotak**. [Berria - Gaiak](#)

Entzun zaitut beti **robot** antzeko makina horiek langileak kentzen zituztela marmaritzen. [Itxaro Borda](#)

Lana aurrezten duten ondasunak (**robotak**, ordenagailuak eta planta automatizatuak, besteak beste). [Iñaki Heras](#)

Etxean landareak ureztatzeko **robotak** egin nahian zebilela azaldu zigun. [Berria - Gaiak](#)

Urertzean garabiek, **roboten** antzera baldar, euren atzapar erraldoiak sartzen zituzten merkantzi ontzietan. [Rafa Egiguren](#)

Nolanahi ere, oro har, **robotaren** erabaki ahalmena txikia da. [Berria - Gaiak](#)

Atzo **robot** urpekari bat eta Frantziako fragata bat salbamendu lanak egiten hasi ziren. [Berria - Mundua](#)

3 (hitz elkartuetan)

Robot konpainiako Ikuo Nishiok Onimusha aurkeztuko du, introari esker sari ugari jaso dituen jokoak. [Berria - Kultura](#)

Errobot erretratua eginez gizon hori imajinatu nahi izan nuen. [Edorta Jimenez](#)

Giza **robotak** zirudien. [Iñaki Zabaleta](#)

4 (izen baten eskuinean)

Irakurtzen ari zarelarik, ukitu egin ditzakezu bahitzaileak eta bahitua, ia baita poliziaren argazki **robotetako** *femme fatale* hori ere. [Iñigo Aranbarri](#)

Lolak berehala egin dio erretratu **robotak**: aurpegi borobila, bibote zabalak... [Patxi Iturritegi](#)

Lekukoen deskribapenak oinarritzat harturik susmagarrien erretratu-**robotak** osatzeko, [...]. [Iban Zaldúa](#)

Kamera-**robot** batzuek argiztatu eta filmatzen dituzte agertoki horiek, eta aldi berean agertokietako espazioak hainbat ikuspuntutatik erakusten dituen pantaila handian proiektatzen. [Berria - Kultura](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

opportunity robotak (4); **robotak askatuko du** (4); **spirit robotak** (5)

robotarekin harremanetan (3)

robotika (*orobat **errobotika** g.er.*) **1** iz robotak diseinatzen eta egiten erabiltzen den teknika.

Ikerketetan **robotika**, bioteknologia, analisi optikoak eta informatika erabiliko ditugu, eta horrela, informazio zehatz eta azkarra lortuko dugu. [Berria - Euskal Herria](#)

ESTIA eskolan apailatzen dituzte ingeniariak hiru berezitasunetan: konzepzioan, **errobotikan** eta logistikan. [Herria](#)

Ekoizpen ereduak «findu» dituzte euskal enpresek eta «gero eta eskarmentu handiagoa» daukate, **robotikan** esaterako. [Berria - Ekonomia](#)

2 (hitz elkartuetan)

Urte batzuk badira Zientzia Museoa **robotika** ikastaroak antolatzen hasi zela. [Berria - Gaiak](#)

John Mankins NASAKo Giza Teknologia eta **Robotika** Departamenduko zuzendaria. [Berria - Gaiak](#)

robotiko izond robotena, robotei dagokiena.

Da Vinci, bihotzeko ebakuntzak egiteko sistema **robotikoa**. **Berria - Gaiak**

Erakusketaren gainerako guneak tresneria elektriko eta elektronikoari, manipulazio [...] **robotikoari**, tresneria hidrauliko eta pneumatikoari eta metrologia eta kalitate kontrolari eskainiko dizkiete. **Berria - Ekonomia**

robotizatu, robotiza, robotizatzen 1 du ad roboten bidez automatizatu.

Beren aspaldiko etsai ezaguna, entrepreneur pribatua bera ere, orain arautua eta **robotizatu** zegoela desagertzeko zorian. **Iñaki Mendiguren**

• 2 izond robotena bezalakoa bihurtua.

Eskukoarekin saiatu da, baina andra baten ahots **errobotizatuak** markatutako zenbakia estaldurarik gabe edo itzalita dagoela erantzun dio. **Sonia Gonzalez**

robotizazio (*corpusean errobotizazio soilik*) iz roboten bidezko automatizazioa.

Iraultza mikroelektronikoak -hots, informatizazioak, automatizazioak edota **errobotizazioak** -produkzio modu berriak ahalbidetu ditu. **Iñaki Heras**

rock 1 iz rock-and-rolla. ik beherago 7.

Rocka badago sektore batzuetan, baina cumbiak, rumbak, merengeak dira nagusi. **Pako Aristi**

Estilo horretatik abiatu eta blues, *rithm&blues* eta **rock**-aren bidea zabaldu zuten Europa zaharrean. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Rocka harrotasunarekin aldarrikatu behar da. **Berria - Kultura**

Rockeko izar baten fama bildu zuen. **Koro Navarro**

Kulturalki *Sex Pistols* eta **rockaren** mugimenduaren inguruan sortutako belaunaldikoa. **Ana Urkiza**

Duela urte batzuk modan jarri zen **rocka** elektronikarekin uztartzea. **Berria - Kultura**

Ez omen da zure aitaren gustukoa zure **rock** ibilbidea. **Berria - Kultura**

Laugarren diskoarekin, **rockera** eta bluesera gerturatu nahi izan du Keuk. **Berria - Kultura**

Rockarenganako zaletasuna hark piztu zigun. **Aingeru Epaltza**

Jendeak bazkari legea egin, eta **rockaren** museoa ikusi nahi zuen. **Patxi Zubizarreta**

2 (izenondoeekin)

Zubia egina da hor, folk-etik rock-erat, eta aski laster **rock** gogorrerat. **Herria**

Rock klasikoa bizirik eta osasuntsu dagoela. **Berria - Kultura**

Rock epikoaren gailurra izan zen 1987an. **Berria - Harian**

80ko hamarkadako **rock** ilunena. **Berria - Kultura**

Abangoardiako **rock** emozionala garatzen du. **Berria - Kultura**

Hegoaldeko **rock** sutua gauzatzen du banda honek. **Berria - Kultura**

XX. mende amaierako pop eta **rock** alternatiboari buruzko azterketa. **Berria - Kultura**

'Power-pop'-a eta **rock** akustikoa. **Berria - Kultura**

70eko hamarkadako **rock** psikodelikoa dute iturri nagusi. **Berria - Kultura**

Ni lehenago **rock** sinfonikoaren atzamar likatsuetan nengoen harrapatua. Bi iturri nagusitak edaten du taldeak: **rock** gotikotik batik bat *Sisters of Mercy* eta *The Lords of the New Church*etik eta dantzarako **rock** industrialetik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Rock erradikalaren garaian zenbait jende deslotu egin zen euskal musikatik, politikaz gehiegi kargatu zelako giroa. **Berria - Kultura**

Rock progresiboaren eta sinfonikoaren alorrean egin da ezagun Bruford Yes, *Genesis* eta *King Crimson*en aritu da. **Berria - Kultura**

3 (hitz elkartuetan)

Zorrik gabeko zoroetxe abandonatu bat, drogamenpekotasuna gainditzeko **rock** izarra hartzen dituen ospitale sotila. **Harkaitz Cano**

Lehen **rock** abeslari eta taldeak (Niko Etxart, Errobi, Ruper Ordorika). "Guns and Roses" izeneko **rock** taldearen kantua zen. **Berria - Harian**

Hertzainak **rock** taldearen kantak. **Joan Mari Irigoien**

Geroago **rock** musika deituko zen musika hura zen, haren aitzindaria, esan dezagun. Laster etsi zuen erietxean, lagun baitzituen han bere **rock** diskoak eta gitarra.

Fernando Rey

Pop eta **rock** festa San Adrianen. **Berria - Kultura**

Rock maratokiak egin zituzten Durango herriko hiru gunetan. **Rock** Gauak denetan antolatzen zituzten! **Berria - Kultura**

Rock oinarriarekin gizarteari lotutako aldarrien ahotsa baino ez dira euren kantuek. **Berria - Kultura**

Baxu-bateria-kitarra-ahotsa ohiko **rock** egituraz haratago beste formula ez hain higituak probatuz arriskatu. **Harkaitz Cano**

Zati batzuk oso-oso geldoak dira eta beste batzuk **rock** ukitua ere badutela esango nuke. **Berria - Harian**

4 (izen baten eskuinean)

Captain Nemo taldeak punk-**rock** eta hardcore erritmoz osatu du bere lehenabaziko diskoa. **Berria - Kultura**

Saio berezi honetan ohiko funk-**rock** sutua entzun genuen. **Berria - Kultura**

Folk-**rock** musikaren izarra hirugarren kantuan errepertorioa aldatzea erabaki zuen eta publiko gehiena hotz samar utzi zuen. **Berria - Kultura**

50eko hamarkadako blues-**rock** doinuekin jantzitako disko interesgarri mordoak. **Berria - Kultura**

Aurretik ere country-**rocka** egina genuen Time between kantuekin. **Berria - Kultura**

Hard-**rock**, punk, blues, country eta folkaz elikatzen den musika. **Berria - Kultura**

Garaje **rocka** eta acid **rocka** dute inspirazio. **Berria - Kultura**

6 pop-rock

Berehalaxe antzematen zitzaion musika mota hari, halako kutsu islamiarra nahasten baldin bazen ere **pop-rock**-etik harturiko zenbait erritmo eta doinuekin. **Joxemari Iturralde**

Etxebarria parkean, **pop-rock** kontzertu nagusia izango da. **Berria - Euskal Herria**

Gaur egungo euskal **pop-rock** musikaren egoera aztertzeke. **Berria - Kultura**

Jazz eta blues doinuei **pop-rock** ukitua ematen diete. **Berria - Kultura**

Dunkelheit taldeak irabazi du Donostiako **Pop-Rock** Lehiaketa. **Berria - Kultura**

7 punk-rock (orobat punk rock)

Betiere punkaren, hardcorearen eta **punk-rockaren** eremuan. **Berria - Kultura**

New wave-aren sofistikazioa (*Don't fall in love*), **punk rockaren** berehalakotasuna (*She's drugs*) eta Eskandinaviako taldeen zorrotzasuna (*Invisible*) biltzen ditu. **Berria - Kultura**

«**Punk rocka** hil da», adierazi zuen Gary Kurfist *The Ramones* taldeko ordezkariak. **Berria - Kultura**

Guk ez dugu **punk-rock** melodikoa bakarrik entzuten, badugu beste eraginik. Berria - Kultura

Punk rock talde mitikoko kidea. Berria - Kultura

8 *punk-rocker* punk-rock jotzen duen musikaria.

Zein entzule nahiago duzu: 80ko **punk-rocker** gazte bat ala BECera joan den 45 urteko guraso bat? Berria - Kultura

7 *rock-and-roll* XX. mendearen erdialdean sortu zen musika eta dantza-mota, doinu bakunak eta erritmo oso markatuak erabiltzen dituen, eta gitarra elektrikoekin eta bateriarekin jotzen dena.

Rock and rollak bizia salbatu zion. Aingeru Epaltza

Disko honen atzean **rock-and-rola** dago. Berria - Harian

Musikari ugari Memphisko Sun estudioetan bildu zen, **rock-and-rollaren** etxean. Berria - Kultura

Hasiera-hasieratik 50eko hamarkadako **rock-and-rollean** jarri zuen arreta Paul Fenechek gidatutako hirukoteak. Berria - Kultura

Cosmos delako lokala nabe bat zen, **rock and rolleko** taldeek jotzen zuten nabe bat. Fernando Rey

Fillmore East, **rock-and-roll** areto ospetsua. Xabier Olarra

Argazkiak beti mugituta sortzen dituen **rock-and-roll** talde bat. Berria - Kultura

Rock-and-roll eta punk doinuak dira nagusi. Berria - Kultura

9 *rock-punk*

Aldi berean funk musika ona ere gozaten ahalko da eta usaiako beste guziak, tradizionaletik **rock-punk** -erat. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antzinako rock (3); **blues eta rock** (3); **blues rock** (6); **euskal rock** (18); **folk rock** (10); **funk rock** (3); **hard rock** (10); **musika rock** (4); **pop eta rock** (6); **pop rock** (55); **pop rock atalean** (3); **pop rock lehiaketa** (15); **pop rock musikaren** (4); **post rock** (6); **punk rock** (9)

rock abeslari (3); **rock amerikarraren** (3); **rock and roll** (36); **rock and rolla** (18); **rock and rollak** (10); **rock and rollekin** (3); **rock and rollaren** (17); **rock atalean** (4); **rock blues** (8); **rock disko** (4); **rock diskoa** (3); **rock doinuak** (4)

rock eta pop (3); **rock gogorra** (9); **rock gordina** (3)

rock jaialdi (5); **rock jaialdia** (8); **rock jaialdiak** (4); **rock jaialdian** (15); **rock jaialdiaren** (11); **rock jaialdiaren hirugarren** (3); **rock jaialdiko** (3); **rock kontzertu** (14); **rock kontzertu bat** (5); **rock kontzertua** (7); **rock lehiaketa** (16); **rock lehiaketa taldeak** (10); **rock melodikoa** (3); **rock musika** (10); **rock musikaren** (13); **rock n roll** (20); **rock n rolla** (5)

rock roll (5); **rock sutsua** (6); **rock talde** (24); **rock taldea** (10); **rock taldeak** (7); **rock taldearen** (6); **rock taldeetan** (5)

acid rocka (3); **euskal rocka** (3); **hard rocka** (7); **post rocka** (3); **punk rocka** (5)

country rockaren (4); **euskal rockaren** (7); **post rockaren** (3); **punk rockaren** (5); **rockaren historiako** (4)

rockabilly 1 *iz* rock and roll mota, countryaren eragin nabarmena duena.

Zaila baita popa, rock esperimentalta, zarata, **rockabillya** eta doinu dantzagarriak nahasten dituen proposamena definitzea. Berria - Kultura

Rockabillyaren errege Robert Gordonekin jo ostean, *Legendary Blues Band* taldearekin bi disko grabatu zituen. Berria - Kultura

Bill Haleyk, Little Richardek eta **rockabillyaren** sustatzaile ugari. Bilbop aurreneko lanaren eragin esparrua zabalduz, jazz, **rockabilly** eta surf doinuak hartu dituzte aintzat. musikari bakoitzari behar duen espazioa uzten dio, batez ere Raul gitarra jotzaileari, beti swing eta **rockabilly** estiloen artean. Berria - Kultura

2 (izenondo gisa)

Mutil eta neska **rockabilly** batzuk ikusi genituen entzuleen artean. Berria - Kultura

3 *iz* pertsona rockabillya.

Zapata zuriak dituen **rockabilly** gaztearekin gurutzatu da: nortasuna behar du munduan barrena zapata zuriekin ibiltzeko, pentsatzen du. Harkaitz Cano

rockanrol (*orobat rokanrol*) *iz* rock-and-rola.

Trikitixa zen garaiko **rockanrola**; emakume horiek dantzan ikusita, konturatuko ginatke Elvis Presleyren gerri-mugimenduak txorakeria hutsa zirela, eta heavy metalkideen kontorsioak mugimendu basatiak, ez arte eta ez grazi. Pako Aristi

rocker 1 *izond* rock-and-rollaren oso zalea denari dagokiona.

Heldu den larunbatean festibaleko emanaldirik **rockerreña** eskainiko dute *Detroit Cobras*, *Duke Spirit* eta *Doctor Explosioiek*. Berria - Kultura

2 *punk-rocker* ik *punk 8*.

rockero (*orobat roker* *g.er*) 1 *iz* rock talde batean jotzen duen edo rokaren oso zalea den pertsona.

Lope deitzen diogun **rockero** zahar hau Akelarreko kantaria izana da. Pako Aristi

Entzun dut kontzertu alternatiboetan arrakastarik itzelena lortu duen **rockeroa** globalizazioaren aurkako ideiak botatzen. Pako Aristi

Epoka horretako **Rockeroek**, beren eguzkitako betaurreko beltzekin, euskaldunak izateko duintasuna eskaini ziguten. Ramuntxo Etxeberri

Ospe handia izan du Thomas poetak **rockeroen** artean. **Rockero** zaharrak hil egiten dira, eta txarrena da **rockero** gazterik ez dela jaiotzen. Koro Navarro

• 2 *izond* rockarena, rockari dagokiona.

Doinu **rockeroak** bilduko dituen disko berria kaleratuko du Elvis Costello musikari ingelesak. Berria - Kultura

Kantuari tonurik inozoena eta **rockeroena** ematen dakien abeslaria. Guk punk jarrera dugu eta gure abesteko era **rockeroa** da. Berria - Kultura

Direla saio tematikoak (erotikoak, umore beltzezkoak, pasotak, **rockeroak** ...), direla antzerki gisako "tramak", formatu txikiko saioak izan ohi dira, hirieta pubetan eta egiten direnak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Diskoa baino **rockeroagoak** izango dira kontzertuak. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

rockero zaharrak (3)

rocklari *iz* rockeroa.

Haren kantakereak eta ahots tinbreak bere sasoiko **rocklariak** be harriturik eukazan. Xabier Amuriza

rockzale (*orobat rock zale*) 1 *iz* rokaren oso zalea den pertsona.

Musikazaleek eta zahazki **rockzaleek** kudeatzen dute, eta, adierazi dutenez, *Noise on Tour Rock* 2006 jaialdia antolatzeke aukera ere ia kasualitatez sortu da. Berria -

Kultura

Ez naiz **rockzale** amorratua baina gustatzen zait, bai. **Juan Luis Zabala**

2 (izenondo gisa)

Kantu zuzen eta **rockzaleak**. **Beria - Kultura**

rodastar *izlag/iz* Rodasekoa, Rodasi dagokiona; Rodasko herritarra.

Rodastarrek Kaliasi eskatu zioten presta zezala bere makina beste hiri-setiatzaile haren kontra. **Santiago Iruretagoiena**

"Jupiterrek", dio hark, "**rodastarrak** maite zituen, eta aberastasun handiak eman zizkien". **Iñaki Iñurrieta**

rodela ik **errodela**.

rodio *iz* platinoaren antzeko gai bakuna, metal zuria, gogorra eta hauskorra (Rh; at. z. 45).

rodopsina *iz* erretinako bastoien diskoetan dagoen proteina.

Rodopsina da (*ikusmen-purpura* ere esaten zaio batzuetan) horretarako material sentikorra. **Irene Aldasoro**

rogazione ik **errogazione**.

rokanbolesko *izond* bitxia, sinestezina, xelebrea.

Halakoa izan baitzen gure arteko historia, eta halakoak gure maite-kontuak: hain absurdoak eta hain **rokanboleskoak** ...! **Joan Mari Irigoien**

Luviniorenak, ostera, betile **rokanboleskoak** ziren eta, Matiasen ustez, atzekoz aurrera zeuden jarrita. **Unai Elorriaga**

rokanrol ik **rockanrol**.

rokero ik **rockero**.

rokodromo 1 *iz* eskalada murre artifiziala.

Egia da neguko eskalatzaile on ugari dagoela, eta **rokodromoetako** boom-ari esker gero eta eskalatzaile hobeak daudela. **Beria - Euskal Herria**

Baionan egin diren lanak eta dagoeneko aurrikusi diren egiturak ekartzen ditu Grenetek gogora, hala nola trinketea, ezker paretak, eskaladarako **rokodromoak**, tenis zelaiak, gimnasioa eta musikarientzako gela. **Beria - Euskal Herria**

Rokodromoak, gimnasioa, taberna eta kontzertuetarako gunea dauzka. **Beria - Harian**

Dena den, bost egun geroago Ariznabarrako **rokodromoan** aurkitu zuten, hankak zinta itsaskorrez loturik. **Gotzon Garate**

2 rokodromoan egiten den lehiaketa.

Goizean hasi eta ilundu arte, Gaztetxe Egunean antzerkia, herri olinpiadak, erakusketak, bazkaria, parodiak, kontzertuak, kalejira, **rokodromoak**, bertsoak, zirkua, kale animazioa, drogen analisia... izan ziren bost gunetan. **Xabier Montoia**

rokume *iz*

Oskola haustear zegoen, eta ordurako **rokumea** mokoa agertzen hasia zen. **Patxi Zubizarreta**

Nirekin ontziratutako merkatariei arrautza ez ukitzeko aholkatu nien, baina haiek aizkorakadaz apurtu zuten, eta **rokumea** erretzeari ekin zioten. **Patxi Zubizarreta**

Rokumearen aita-amak izango zirela pentsaturik, tximistaren pare ontziratu ginen. **Patxi Zubizarreta**

rol 1 *iz* egoera jakin batean norbaiten duen betekizuna. ik **paper 16; betekizun**.

Ongi ulertzeko **rol** edo eginkizun hori, ekintza indibiduala gainditu behar da. **Isabel Arrigain**

Bere **rola**, sukaldeko hizkerak soziologoek solaskeriarri mailegatu dion hitza hobetsiz gero. **Aingeru Epaltza**

Poetak ez du engoitik zeregin (**rol**) horretan zer eginik. **Askoren artean**

Halako nortasun-eraldaketa eta -berrantolaketak gu guztion baitan gertatzen dira, egunean zehar, **rol** nahiz ageriko nortasun batetik beste batera aldatzen garenean.

Xabier Olarra

Garapenaren **rola** eboluzioan. **Askoren artean**

Espereintziak bere **rola** betetzen du, baina modu eratorrian. **Askoren artean**

Zer **rol** bete du, bada, emakumeak? **Beria - Gaiak**

Momentu honetan, **rol** hori jokatzea dagokit. **Ana Urkiza**

Errepresorearen **rola** jokatu? **Jon Arretxe**

Gizonek **rol** bat jokatuz eta emakumeek beste bat. **Beria - Harian**

Gizarte eragileek zer **rol** jokatu dute bake prozesuan? **Beria - Harian**

Zernolakoek **rol** hori jokatzerak behartu izana ez da nire errua. **Jon Muñoz**

Tribuak ezagutzen eta onartzen duen **rol** bat hartzen baduzu, ez dago arazorik. **Ana Urkiza**

Emakume txintoaren **rola** hartzen zuen, baina matxoa izateari utzi gabe. **Karlos Zabala**

Adostuta datoz, **rolak** banatuta. **Koldo Izagirre**

Botere eta mendekotasun harremanetan oinarritutako **rolak** banatzerak. **Luis Elberdin**

Ni primeran identifikatzen nintzen sadomasokistaren **rolarekin**. **Jon Arretxe**

Emakumezko idazlearen **rola**, aurrerantzean, zein izango da? **Ana Urkiza**

Zer **rol** du ikastolak herrigintzan? **Berria - Euskal Herria**

Zein **rol** izan behar dute hedabideek gatazkan? **Berria - Kultura**

Geureganatutako **rolek** agintzen ziguten nik egin behar nuela aurrerako urratsa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ume hori autonomiaz jantzi ahala, amaren esneak bere **rola** galtzen du. **Edorta Agirre**

Gustura zaude **rol** horrekin? **Berria - Kirola**

2 (izenondoekin)

Diruak betetzen duen **rol** nagusia truke bidea izatea da. **Iñaki Heras**

Betetzen duzuen **rol** garrantzitsuaz jabetzen zarete? **Berria - Kirola**

Rol inportante bat jokatu nahi dugu. **Berria - Harian**

Bazter utzi nuen haatik **rol** goresgarri hura, aingeru kontsolatzailearena hartzeko. **Jon Muñoz**

Inork ez zuen susmatu ere egin Ivan Ogareff **rol** gorrotogarria jokatzeko ari zela, inork ezin zuen igarri tsarraren mandatari uestzko hori traidore bat besterik ez zela. **Karlos Zabala**

Inor ez da mundura sortzen **rol** sexual zurrun batekin. **Karlos Zabala**

Rol zaila dute, baina asko egin dezakete. **Berria - Harian**

Zientzia-ikerketaren joanetorrian anomaliek [...] jokatzeko **rol** epistemologikoa ahaztu egiten da. **Askoren artean**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Delako **"rol"**-joko bat" izan zitekeela esan zuten batzuek. **Gotzon Garate**

Masturbazioan ere gertatzen da sexuen arteko **rol** bereizketa. **Luis Elberdin**

Ordura arte biek ametituriko **rol** banaketa -Enrike azalpen ugariak ematen, etorriak eman ahala, eta Gabin haiek entzuten- aldatu egin da gaur. **Iñaki Iñurrieta**

Lege proiektuak ez du eskubidea bermatzen, ezta ere emakumeen zaintzarekiko **rol** aldaketa. **Berria - Harian**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irakasle **rolean** erabat sarturik. **Eider Rodríguez**

Adinez eta pentsaeraz ikusle eta kontalari **rola** betetzen duten bi pertsonaien arteko aldea ere ez da makala. **Jon Muñoz**

Poliziak eta epaileek pertsona arriskutsu izendatu naute mugimendu politiko jakin batean dudak buruzagi **rolarengatik**. **Berria - Mundua**

-Hori badaki -erantzun zion tsarrak-, baina ez daki Ivan Ogareffek, erreboltari **rola** ez ezik, traidorearena ere jokatu behar duela. kontsumitzaile **rola** betetzen duten gaixoei. **Karlos Zabala**

Maitale eta ama **rolak**, biak batera egitera behartua. **Unai Iturriaga**

Generoa ideologiak eraikitako zerbait da, gizonetako edo emakumezko jaiotzeagatik izan beharreko gizarte **rolak** zehaztu eta betikotzeko. **Berria - Gaiak**

5 antzezlan edo film batean, pertsonaia baten parte. ikpaper 14.

Komedia batean beldurrez dagoen pertsonaiaren **rola** jokatzeko zuten bete-betean, atseginez. **Karlos Zabala**

Hollywooden horrenbeste maite dute **rol** horietakoa bete du Seymour Hoffmanek *Capote*-n. **Berria - Kultura**

Antzerkira moldatzean nik erantsi ditut **rol** horiek. **Berria - Kultura**

Moreno sopranoak etekina atera zion Museta kaskarinaren **rolari**. **Berria - Kultura**

Errepertorio zabala menderatzen du Hendricksek; orotara, hogeit hamar opera **rol** interpretatu ditu, eta horietariko hamabi grabatu ditu. **Berria - Kultura**

5 (izenondoekin)

Rol txiki bat dauka filmean. **Berria - Kultura**

Rol nagusiak ez izan arren, hitz egin behar duen pertsonaiaren bat falta zaigu oraindik. **Berria - Kultura**

Emakumezko aktoreak **rol** nagusian diren 45 film emango dituzte atal horretan. **Berria - Kultura**

Egun berean baitzen Syriana-ren proiektioa, George Clooney **rol** nagusian duen thriller erakargarriarena. **Berria - Kultura**

Gauza bera gertatu zen Moore baxuaren lanarekin, lango gaizkilearen **rol** konplexu eta luzean. **Berria - Kultura**

Rol komikoa egingo dut, Izaskun Kintana bilbotar sopranoarekin batera. **Berria - Kultura**

Elizaren historia irakurrita, harrigarria iruditzen zitzaidan zer nolako **rol** itsusia ematen zieten Dolcinori eta Serveti. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

oso rol garrantzitsua (3); **rol aktiboa** (5); **rol bera** (3); **rol garrantzitsua** (24); **rol garrantzitsua duela** (3); **rol garrantzitsua jokatu** (7); **rol garrantzitsua jokatzeko** (4); **rol nagusia** (13); **rol nagusia jokatu** (3); **rol nagusiak** (3); **rol nagusian** (7); **rol sexualak** (3); **rol txiki bat** (4); **zein rol** (5); **zer rol** (9); **zer rol jokatzeko** (3)

beharreko rola (3); **bere rola** (15); **bere rola bete** (3); **bere rola jokatzeko** (4); **emakumearen rola** (4); **emakumeen rola** (3); **funtsezko rola** (10); **funtsezko rola betetzeko** (3); **jokatzeko duen rola** (5); **nagusiaren rola** (4); **nire rola** (3); **pertsonaiaren rola** (8); **poetaren rola** (3); **protagonistaren rola** (3)

rola bete (10); **rola bete du** (3); **rola beteko** (3); **rola betetzeko** (14); **rola betetzeko du** (5); **rola betetzeko dute** (3); **rola egin** (5); **rola egin zuten** (3); **rola egiten** (4); **rola garrantzitsua** (3); **rola hartu** (3); **rola hartzen** (3); **rola izan** (4); **rola jokatu** (18); **rola jokatu behar** (3); **rola jokatu beharko** (3); **rola jokatu zuten** (7); **rola jokatzeko** (6); **rola jokatzeko du** (4); **rola jokatzeko zuten** (3)

emakumeen rolak (3); **ezarritako rolak** (3)

bere rolean (4); **pertsonaiaren rolean** (4); **rolean ariko da** (4)

genero roletan (3)

rollo¹ iz adkor kalaka; kontu aspergarria; kontua.

Jefea bere **rolloarekin** ari zaio: aldizkariaren linea, moda edonoren bizitzan sartu behar dutela, eguneroko bizitzan txertatu eta ez dakit zer. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eta ondoren, Martari botatako **rolloaren** antzekoa errepikatzen du, aldizkariaren ideario, helburu eta abarrez. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nire **rolloa** etenaz, galdera bat egin zidan zuzen-zuzen: [...]. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zeramika egiten hastea **rollo** bat zen eta puntua berriz, Jesus, puntua! **Xabier Mendiguren Elizegi**

Lehenago..., mutil horrena gertatu baino lehenago, esaten zuten ez zuela maitemindu nahi, maitasuna kakaputza eta **rollo** bat zela. **Antton Olano**

Besteak ez zuten ulertuko eta berriz ahoska zezala eskatuko zion, eta nongoa zen, eta *spelling* egin zezala, eta galderak, eta **rolloa**. **Iñaki Zabaleta**

Hiruroi artean **rollo** ona egoteko, ezta? **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Barkatu; hau... hau **rollo** txar bat da: zure atzetik ibili beharko banu bezala. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Rollo politikoetan sartuta ez zegoen taldeko ia bakararra, intsumisoz gainezka zegoen koadrilan miopiagatik libratu zen alproja. **Iban Zaldúa**

Hasieran, ni han nengoela ohartu eta gaztelaniara pasatzen ziren, errespetuz-edo, baina nik esan nien egiteko lasai katalanez, gustura aditzen niela, euskaldunon **rollo** hori, badakizu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 maite kontua.

Neskekin **rolloak** izan, esan nahi duzu. **Iñaki Iñurrieta**

Orduan, neska, tipo honetaz bastante aspertuta dago, eta futbolistarekin **rolloa** bilatuko du. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Etxeok maite izanda, kanpoan **rollo** bila dabilten gizonezko modernoek protagonizatzen dituzte ipuin hauek. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

rollo² ik **erollo**.

romano *iz* erromatarra.

Monumentu kontuetarako oso **romanoa** naiz. Juan Mari Irigoien

romeokardia *iz*

Romeokardia ez baita erraz sendatzen den gaixotasuna, itxura batean... Juan Mari Irigoien

Zoaz, bai, baina ez ahaztu zu zeu zarela zeure lehenengo gaixo eta zeure burua ere zaindu beharko duzula, **romeokardiak** jota segitzen duzu-eta. Juan Mari Irigoien

ron (*orobat rum g.er.*) **1** *iz* azukre kanaberaren zukua destilatuz egiten den edari bizia.

Yucateca garagardo bikain baina ordurako ahituaz aparte, **rona** besterik ez zegoen Palenquen, ikaragarri txarra. Joxe Austin Arrieta

Lehenbizi, edontzia ur beroz betetzen zuen; gero, azukrea jarri ondoren, **rona** isurtzen zuen tantaz tanta limoi xerraren gainean, urarekin ez nahasteko moduan. Karlos Zabala

Ronak abantaila zera du, ez duela garagardoak bezala izerdirik eragiten. Joxe Austin Arrieta

Hator **ron** pixka bat edatera Ana Erreginaren Errebantxara. Juan Garzia

Beheko tabernan **rona** eta kokakola edaten aritu naiz eta tabernariarekin hizketan. Berria - Kultura

Beharbada **ronaren** eragina izango da. Mirentxu Larrañaga

Ron oneneko kubatak, ginebra garestienaz egindako ginkasak. Jon Arretxe

Ez zion muzinik egin kolari erantsi nion **ron** merkeari, eta agur labur batez urrundu zen. Javi Cillero

Barruan daukadan **ron** bizigarriari neskaren ukitu leunak azaleratu dizkidan sentipen kilikagarriak gaineratzen zaizkio. Pako Aristi

Gabriel Irisarrik ikusiak zituen edari-saltzaileak, **ron** barne-pizgarri saltzaileak batez ere, eta gozoki-saltzaileak, jendeartetik oihuka. Felipe Juaristi

2 (neurriekin)

Sutautsez nahasiriko pinta bat **ron** irentsarazi zion bakoitzari. Juan Garzia

Bi barrika **ron**. Juan Garzia

Orduan, Knot jauna otzan makurtu zen; baina uko egin zion bere **ron**-pitxerkadari. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan)

Ron gaua izango dela susmatzen du, hori hasteko. Sonia Gonzalez

-Ron ttantta bat, aita. Koro Navarro

Kearney jauna eztlak penatzen zuenean, lumatzako ohazal bat jartzen zion Kearney andreak oinen gainean eta **ron**-pontxe sendo bat egiten zion. Irene Aldasoro

Bibliak, **ron** upelak, argiontzia, aurpegia belzteko betuna. Juan Garzia

Banuen **ron** botila bat ere, bizpahiru baso edan nituen hartatik, eta nire egoerak barre eragin zidan. Josu Zabaleta

Rum basokaden artean istorioa kontatu zidanak ez zien elkartrukoen xehetasunei ardurarik eskaini. Iban Zaldia

Zatozte **ron** xorta bana hartzera. Itziar Otegi

Ron-errazio bikoitza atera digute, eta istant batean berotu naiz. Mirentxu Larrañaga

Zegokion galleta eta **ron** anoa izendatu zioten, etorkizuneko harrapakinen bere partearrekin batera. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ron botila (13); **ron botila bat** (6)

ron-ron (onomatopeia)

Katuak **ron-ron** egiten zuen pozik Hermioneren besoetan. Iñaki Mendiguren

Ron-ron-ron egiten zuten. Pablo Sastre

rondo **1** *iz* lelo nagusia hainbat aldiz errepikatzen den eta bigarren mailako leloekin nahasten den musika-lan dotorea.

Rondo erara idatzitako hirugarren pasarteak [...]. Berria - Kultura

2 irud/hed

Meategi kontuzko paperen jirako **rondo**-dantza tristeak bere lekua uzten zion, arratsaldero, akelarre biziko larrujotze interklasista, publiko eta modu askotara txirikordatu bati.

Juan Garzia

rosbif ik **roastbeef**.

rossiniar *izlag* G. Rossinirena, Rossiniri dagokiona.

Sasoi horretan nagusi ziren opera **rossiniar** eta belliniarretatik bereiz zitekeen lana zen; garaiko opera bufoen aldean, opera serioa. Berria - Kultura

rotaflex *iz* zerra birakaria duen ebakiteko tresna.

Kableak mozteko **rotaflexa** erabili zuten solidarioek. Eduarne Elizondo

Taldeko zortzi kide lanetan sartu, eta, zinpeko goardia indargabetu ondoren, **rotaflex** izeneko makinaren laguntzaz urtegia egiteko lanak porlanez hornitzeko kableak moztu zituzten. Berria - Euskal Herria

Editorea zen, zeina, tamaina ertaineko **rotaflex** bat eskuan, aparra ezpainetan eta begiak beren zuloetatik irtenda, politikariaren inguruan bildutako zortzi edo bederatzita pertsonen aurka amildu baitzen Jon Alonso

rotonda ik **errotonda**.

rottweiler *iz* txakur arraza beltz-kolorea, handia eta gihartsua, ile sarri eta gogorrekoa, gorputzeko zati batzuk marroiak dituena.

Bi zakur handik laguntzen zioten mutikoari, **rottweilerra** zen bata eta siberiar husky arrazaz nahasita bestea. [Gotzon Garate](#)

Rottweiler, doberman, boxer, pitbull arrazetakoak. [Gotzon Garate](#)

Pabiloietakoa apustueta lehiatzen zirenak doberman, presa canario, **rottweiler**, dogo argentinarrak, pitbull edo bulldozerrak lako zakur handiak izan arren, [...]. [Harkaitz Cano](#)

Garikoitzi bulldog bat eta **rottweiler** bat erosi genizkion iragan den astean, bere gurasoen Landetako eta Lizarradeko txaletak zain ziezazkien. [Josetxo Azkona](#)

Inbidiaz begiratu diot emakume batek sokatik tiraka daraman **rottweiler** zakurraren bisera gorriari. [Anjel Lertxundi](#)

rotuladore ik **errotuladore**.

rotulo ik **errotulu**.

roulotte *iz* bi gurpileko atoaia, automobil bati lotzen zaiona. ik **karabana 5**.

Roulotte bat, zakar maniobratuz gure furgoneta aurreratzen ikusi dugu, eta haren gidariak gelditzeko imintzioa egiten zigula leihatilatik besoa atereaz. [Patxi Zubizarreta](#)

Roulotte moduko taberna olanaz estalian argiak pizturik zeuden, eta lorehun tulipa bat zirudien. [Juan Kruz Igerabide](#)

Beren emazteek etetik bota eta **roulotte** batean bizi diren bi gizonen istorioa. [Berria - Kultura](#)

round 1 *iz* boxeoko borroka batean, borrokaldietako bakoitza.

Probintziako txapeldunak, berehala ikusi zen, Bagottik baino estilo hobea zuen, baina Bagotti azkarragoa zen eta lehen **rounda** arnasa kentzeko modukoa izan zen benetan.

[Koldo Biguri](#)

Publikoa xutik zegoen, borroka **round** bakar bat iraunen zuela pentsatuz. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Bigarren **roundean**, Peponeren txapelduna patata zaku baten antzera erori da lurrera. [Koldo Biguri](#)

Laugarren **rounderako** ordea, Mohammeden aurpegian nekearen aztarnak agertzen hasi ziren. [Harkaitz Cano](#)

Seigarren **roundean** jada korden aurka baztertu zuen pare bat aldiz Koliriok bere aurkaria. [Harkaitz Cano](#)

2 irud/hed

Mende-erdi hartan Txina militarki Japoniaren mende egon zen; eta borroka honen azken **round**-ean, [...]. [Iñaki Mendiguren](#)

royalti (*orobat royalty*) *iz* patente bat erabiltzeagatik pagatzen den ordainkizuna.

Jakina da, ordea, patentearen titularrak ez den beste edonork baimena eskatu eta **royalti**-ak ordaindu behar dituela gene hori erabiltzeko, dela ikertzeko, dela testak egiteko, dela sendagai berriak frogatzeko. [Berria - Gaiak](#)

Prediku hori nirea zen, baina ez nion **royaltyrik** eskatzeko asmorik. [Aingeru Epaltza](#)

royalty ik **royalti**.

ruandar *izlag/iz* Ruandakoa, Ruandari dagokiona; Ruandako herritarra.

Nazio Batuen Erakundeak Kongon duen behatzaileen misioak atzo ehun bat soldadu **ruandar** begiztatu zituen Kongoko lurretan. [Berria - Mundua](#)

Hala jakinarazi dio funtzionario **ruandar** batek Nazio Batuen Erakundeko ordezkari William Swingri. [Berria - Mundua](#)

Banjamulengeak, Kongon duela hamarkada batzuk bizi direnak, ez dira kongoarrak, eta Ruandarentzat ez dira **ruandarrak**. [Berria - Mundua](#)

Ondoren, genozidiotik bizirik atera ziren **ruandarrek** euren senideei lur eman zieten, guztira 250.000 pertsonaren hilobiak bilduko dituen hilerri handian. [Berria - Mundua](#)

rubendar *izlag/iz* Biblian, Rubenen leinukoa.

Horiek ziren **rubendar** senitateak: 43.730 gizonetako guztira Kore lebitarra eta, harekin batera, Datan, Abiram eta On **rubendarrak** Moisesen aurka matxinatu ziren.

[Elizen arteko biblia](#)

Honen seme Beera, **rubendarren** buruzagia, Asiriako errege Tiglat-Pilneserrek erbesteratua. [Elizen arteko biblia](#)

Rubendarren lurraldeak Jordan ibaia zuen muga. [Elizen arteko biblia](#)

rubi ik **errugbi**.

rubia ik **erubia**.

rubio ik **erubio**.

rugbi ik **erugbi**.

rugbilari ik **erugbilari**.

rugbizale ik **erugbizale**.

rugby ik **errugbi**.

rugbylari ik **errugbilari**.

ruleta ik **eruleta**.

rum ik **ron**.

rumba (*orobat runba g.er. eta errunba g.er.*) **1** iz Kubako dantza, jatorriz afrikarra, erritmo konplexukoa; dantza horren musika.

Lebita zuriz eta galtza argiz jantzitako lau beltz, horietako hiru biolin-jotzaile eta bakarra kontrabaxu jotzaile, boleroak eta **rumbak** joka ari ziren. **Felipe Juaristi**

Neronek ere izaten ditut horretarako barne-bultzadak... batez ere **rumba** dantzatzen dudanean. **Xabier Olarra**

21 aire eta kantu, entzuleak dantzarazteko: fandango, arin-arin, pasodoble, **rumba**, bolero eta bertze... **Herria**

Twista, balsa, **rumba**, arin-arina, dena zetorkion neurrira eta denean moldatzen zen nesken pareko. **Koldo Izagirre**

Rocka badago sektore batzuetan, baina cumbiak, **rumbak**, merengeak dira nagusi. **Pako Aristi**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Flitterren zaleak gitarra gogorak, metalikoak, aurkituko ditu *Chicarelan*, baina baita doinu latinoak edota **runba** kutsuko melodiak ere. **Berria - Kultura**

rumbera (*corpusean runbera soilik*) *iz*

Haren atzean Mendoza, jazbana jotzen zuena, bi **"runbera"** eta danborra besoetan eta bonboa bizkarrean hartuta. **Pako Aristi**

runba ik **rumba**.

runbera ik **rumbera**.

rupia ik **erupia**.

rural (*orobat errural g.er.*) **1** *izond* baserriari edo landari dagokiona. ik **landa**¹ **4**.

Hoberik ezean, **rurala** deitzen nion, jende guztiak bezala. **Bernardo Atxaga**

Hiria ezagutu ere egiten ez duten jende **ruralak**. **Joxe Azurmendi**

Nik euskal mundu **ruralaz** hitz egin nahi izan banu -pentsatze hutsak oilo pinporta jartzen du-, Asteasun, Albizturren edo Zizurkilen kokatuko nituen nire kontakizunak, nire haurtzaroko hiru herri nagusietan. **Bernardo Atxaga**

Garoa-ko mundu **rurala** mesprezatzen da eta *Obaba* loriatzen da; ezin da jasan mitologia judu-kristaua, eta Polinesiako edo aurrehistoriako mitologiak debozioz mires/goresten dira; progresoa eta razionalitatea esijitzen da gogor, eta ekologia kuasimistiko bat. **Joxe Azurmendi**

Leku **ruralak** sinonimo gaiztoak zituela jakin nuen, bai behintzat hiriko ikaskideen artean; *aldeano*, *palurdo* edota *boronoen* jatorri zela, nonbait. **Bernardo Atxaga**

Turista inteligente horientzat, aitatxi-amatxi ezinduak xoko batean ezarriz, hauen erretretaren sosarekin alabaina, etxaldeetan, *gite ruralak* irekitzen ziren, *ferme auberge* eta *camping à la ferme* anitz. **Itxaro Borda**

Musikea ulertzeko era **ruralagoa** zan, herri kirolari lotuagoa, ia herri kirol bat gehiago balitz lez. **Xabier Amuriza**

2 (izan aditzarekin)

Gaztelania, portugesa, etab. ere, hastean pobreak eta **ruralak** ziren, jende xumearen mintzairak. **Joxe Azurmendi**

Hizkuntza klasiko guziaz da funtsean baserriko **rurala** izana, eta bere troporik ederrenak tokian tokiko izadiari zor dizkiona. **Patziku Perurena**

Pentsatu nuen [...] "mitoa" izan zitekeela **"rural"** delakoaren ordekoa, eta hurrena nire ipuinei buruz galdetzen zidatenean, halaxe erantzungo nuela: "narrazio mitikoak hartzen ditut gogoan, nire gizarteko jendearen bizitza esplikatzen baitute". **Bernardo Atxaga**

3 baserrian edo landan aritzen dena.

Soldaduei eta guardia **ruralei** Kuban barrena kanpotarren jabetzakoak jagon ditzaten agindu zaie. **Edorta Jimenez**

ruralismo *iz* rurala denaren nolakotasuna. ik **ruraltasun**.

Ruralismoa, ezhiria, ezhistorikotasuna da; ikusiko dugu Andaluzian berriro, jende begetalak. **Joxe Azurmendi**

Esentzialismo eta **ruralismo** sasiromantiko, ezen ez erromantiko, honen kritika -Tx. Agirre, Orixe-, euskal literaturari begira, aspalditxo, h[au] d[a], jada 1960 eta 70eko urteetan egin zen Euskal Herrian. **Joxe Azurmendi**

ruraltasun *iz* rurala denaren nolakotasuna. ik **ruralismo**.

Nire lekua ongi izendatzeko eta definitzeko premiak ere lehen bultzada hori izan zuen agian, halako konnotazio txarrak arrastatzen zituen **"ruraltasun"** delakoaz libratzeko

desioa. [Bernardo Atxaga](#)

Onartzeko moduko ikuspuntua zen edonorentzat, eta ni ere [ruraltasunaren](#) ildotik abiatu nintzen nire lekua eta bertan gertatzen zen guztia ulertzeko asmotan. [Bernardo Atxaga](#)

Baina igual, bolada baten ondoren, [ruraltasun](#) mina erneko zaigu berriro, eta itzuliko gara lehenagoko lurraldeetara. [Ana Urkiza](#)

Surrealtasunaren eta [ruraltasunaren](#) arteko nahasketa bat. [Harkaitz Cano](#)

ruso *izlag/iz ipar* errusiarra.

Laugarren egunean, azkenean, tren berriz abiatzen da Berlin-i buruz eta gogoetan ari gira ez ote gituden [ruso](#) frenterat eremaiten harresi eraikitzeko. [Michel Oronoz](#)

[Ruso](#) hegazkin zonbaitek beren mitralleten zirimoletan kausitzen gitudze eta lagun zonbait hiltzen dituzte. [Michel Oronoz](#)

26 gizon dira boz ederrekin, puxka bat [Rusoen](#) maneran ari direnak, arras ederki. [Herria](#)

Block 17 hartan sartu zituzten ere eguzki-aldetik etorri presoak, [Rusoak](#) Alemanian sartzen hasiak baitziren. [Marzel Etxehandi](#)

[Rusoek](#) eguzkialdeko Prusiaren mugak pasatuak zituzten, eta mendebalean aliatuak Rhin ibaian ziren. [Marzel Etxehandi](#)

ruteniar *izlag/iz* gaur egun Ukrainaren eskualde den Ruteniakoa, Ruteniari dagokiona; Ruteniako herritarra.

Zein sarri entzuten dugun, Amerikako lurtean, ingeles eta italiar eta poloniar eta [ruteniar](#) eta aleman eta eskandinaviarrak guztiak elkarrekin bakean eta pozik bizi badaitezke, zergatik ezin daitezkeen horrela bizi beren sorlekuetan. [Iñaki Mendiguren](#)
